

COLOMBIA



**Indigenen eta jatorri afrikarreko pertsonen eskubideak,
Kolonbiako Estatuaren eta FARC-EP indar armatuen
arteko bake-prozesuaren esparruan**



El 20ko bizipenak. Lur-jausitik bizirik atera baziren ere, familiak arriskuan daude oraindik.

Aurkibidea

I. Lider sozialen eta pertsona defendatzaileen kontrako erasoek benetako bakearen itzaropena lausotu dute	5
II. Komunitate indigenen eta afrokolonbiarren liderrak	11
III. Lurraren eta lurraldearen defentsa herri etnikoen aldetik	15
IV. Bake Akordioari eta Justizia Trantsizionalari egindako ekarpen etnikoak	23
V. Memoria Historikoa eta erreparazio sinbolikoa	27
Bibliografia	29

Kredituak:

IKERKETA: SOFÍA DUYOS

TESTUAK: JUAN TAFUR

ARGAZKIAK: CARLOS HENAO

DISEINUA ETA MAKETAZIOA: CABINET KOMUNIKAZIOA

Mundubat



Diruz laguntzen dute:





E.H.
Punta Icaco
Puente Nayero
C.C. Rio
Naya

I. Lider sozialen eta pertsona defendatzaileen kontrako erasoek benetako bakearen itxaropena lausotu dute

2016ko azaroan, Juan Manuel Santosen gobernuak eta FARC-EP indar armatuen gerrillak Bake Akordio historikoa sinatu zuten Habanan eta, horrela, amaiera eman zitzaion 50 urte baino gehiago iraun duen eta 8 milioi biktima eragin dituen gerrari. Indarkeriak endemikoa izaten jarraitzen du¹, baina elkarriketak eta konpromisoak nabarmen murriztu zituzten sarraskiak, lekualdaketak eta indarrezko desagerpenak, eta erronka zein desafio handiko Kolonbiaren eraketa kolektiborako prozesua jarri zuen martxan.

Nolanahi ere, Akordio horiek eta Askapen Nazionalerako Armadarekin (ELN) batera abiarazitako Negoziazio Mahaiak sortutako itxaropena guztiz lausotuta geratu da. Izan ere, izugarri handitu da² lider sozialen eta giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen kontrako era-

soen³ eta indarkeriazko heriotzen kopurua: 2016ko azaroko data enblematiko horretatik 2018ko maiatzera, 283 lider sozial eta defendatzaile hil dituzte⁴. Beste hitz batzuetan esanda, bi egunez behin pertsona bat hil da bakea eratzeagatik; gehienek lidergo sozialeko eginkizunak betetzen zituzten. Kolonbiako Herriaren Defentsa Erakundeak 343 lider eta pertsona defendatzaileen homizidioa erregistratu du 2016ko urtarrilaren 1etik 2018ko abuztuaren 22ra⁵.

Gaitz hori hedabideetara iritsi da eta zifrak eztabaida-gai bihurtu dira⁶. 2017an, Kolonbian hil zituzten euren eginkizuna mundu osoan betetzen zuten defendatzaile guztien ia herenak, Front Line Defenders erakundeak emandako datuen arabera⁷. Arazo larria da eta, Kolonbiako Herriaren Defentsa Erakundearen arabera, eskual-

deko nahiz nazioko 424 erakunde daude arrisku-egoeran (erakunde sozialak, komunalak, etnikoak, genero-alorrekoak, aniztasunekin lotuta daudenak, politikoak eta popularrak).

2018ko maiatzaren 27ko presidentetzarako hauteskunderen hurrengo asteetan are gehiago handitu zen eraildako defendatzaileen eta lideren kopurua. Indarkeria-bolada horrek Kolonbiako historia berriaren garairik bortitzena berpiztu du. 2018ko uztailaren hasieran, Kolonbiako gizarteak guztiz uko egin zion indarkeriari, eta manifestazio ugari egin ziren, #NosEstánMatando (#HiltzenAriGaituzte) kontsignarekin, herrialdeko eta atzerriko 50 hiritan baino gehiagotan, hala nola Parisen, Berlinen, Madrilen edo Sydneyen⁸. Hurrengo egunean, gobernutik irten berri zen Juan Manuel Santos presidenteak indarkeria horren kontrako

1 OMEren arabera, eskualde batek indarkeria endemikoa jasaten du bertako homizidio-tasa 100.000 biztanle bakoitzetik 10ekoa edo handiagoa denean. 2017an, homizidio-tasa (24 homizidio 100.000 biztanle bakoitzeko) azken 42 urteetatik baxuena izan zen; zauritu eta/edo anputatutako borrokalarien kopurua %98 baino gehiago murriztu da. Heinrich Böll Stiftung-Colombia Fundazioa, *Informe especial de Derechos Humanos Situación de líderes y líderes sociales, de defensoras y defensores de derechos humanos y de excombatientes de las Farc-EP y sus familiares, Ideas Verdes Txostenaren 8*. zenb., 3. 2018ko ekaina.

2 2016tik eta 2017tik, igoera %32,5ekoa izan da, Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoaren (NBGEGKB) arabera. *Informe Anual sobre la situación de Derechos Humanos en Colombia*, 2018ko martxoa. A/ HRC/37/Add.3, 2018.

3 2016ko urtarritetik abendura, Giza Eskubideen Defendatzaileen kontrako Erasoen Informazio Sistemak (SIADDHH) —Somos Defensores Kolonbiako Gobernu Kanpoko Programarena— 481 defendatzaile eraso zituztela adierazi zuen. 2017an, 560 kasu izan zirendenbora-tarte berean. Ikus 2017ko Urteko Txostena, *Piedra en el zapato*, 2018, 59.

4 Honela gertatu ziren 283 heriotzak: 2016ko azaroaren 24tik abenduaren 31ra, 14 hilketa izan ziren; 2017an, 191 eta, 2018ko urtarritetik maiatzera, 78. Ikus *Informe especial de Derechos Humanos: Situación de líderes y líderes sociales, de defensoras y defensores de*

derechos humanos y de excombatientes de las Farc-EP y sus familiares, Heinrich Böll Fundazioa, 2018ko ekaina, 13.

5 <http://www.defensoria.gov.co/es/nube/>

6 2017ko homizidio kopuruak asko aldatzen dira batetik bestera: gobernuaren zifra ofiziala (81 homizidio), Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoak (NBGEGKB) eskaintzen dituenak; Somos Defensores gobernu kanpoko programak: 106 homizidio; Indepaz – Aberriaren Martxak: 170 homizidio; Heinrich Böll Stiftung-Kolombia HBS Fundazioak: 191 homizidio; Herriaren Defentsa Erakundeak: 206 homizidio.

7 Front Line Defenders Fundazioak 2017an egindako urteko txostenaren arabera (arriskuan dauden giza eskubideen defendatzaileei buruzko txostena), urte horretan 312 defendatzaile hil zituzten, 27 herrialdetan, bakearen alde lan egiteagatik; Kolonbian gertatu ziren hilketa gehien (91), Brasilen, Filipinen eta Mexikoren aurretik. Hilketa guztien %80 lau herrialdetan bakarrik gertatu ziren: Brasilen, Kolonbian, Mexikon eta Filipinetan. Mundu osoan eraildako defendatzaile guztien ia herenak (%29) kolonbiarrak ziren. Hemen: <https://www.frontlinedefenders.org/es/resource-publication/annual-report-human-rights-defenders-risk-2017>.

8 *El Tiempo*, 2018ko uztailaren 6a: En más de 50 ciudades se vivió la ¡Velatón! Por asesinatos de líderes.

itun nazionala⁹ deitu zuen; berak eta Iván Duque presidente hautetsiak, alderdi politikoek eta herrialdeko estatu-erakunde garrantzitsuenek sinatu zuten ituna. Haren barnean, Kolonbiako landa-eremuetan oposizioko alderdiei laguntzen dieten lider sozialak babesteko neurri bereziak daude.

Uztailean, Antonio Guterres NBEko idazkari nagusiak Azken Bake Akordioaren ezarpenean egindako aurrerapenen balantzea egin zuen Segurtasun Kontseiluari bideratutako Kolonbiako Egiatzatze Misioaren Hirugarren Txostenean. Bertan, argi eta garbi azpimarratu zuen “bakea eratzearen ideian aurrera egin beharra”. Horrez gain, Akordioak ezarri ahal izateko Juan Manuel Santos presidentek eta FARC taldeko buruzagiek lidergoa eta determinazioa agertu behar dutela aitortu zuen. Bestalde, borrokalari ohiei diru-sarrerak sortzea ahalbidetuko dieten ekoizpen-proiektuak ezarri behar diren premia azpimarratu zuen idazkari nagusiak. 2016an Bake Akordioa sinatu zenetik 2018ko ekainera, lehengo matxinatuen taldeko 76 borrokalari ohi eta senitarteko baino gehiago hil dituzte¹⁰, eta heriotza horien ikerketek izan duten aurrerapen maila oso txikia izan da¹¹. Era berean, kezka handia agertu zuen “lider

sozialen eta giza eskubideen defendatzaileen heriotza kopuruaren igoeratik, indarkeriaren dinamika horrek herrialdeko landa-eremuak kaltetzen baititu, batik bat”. Bestela ezin zitekeen moduan, hark premiazko neurriak eskatu zizkion Gobernuari, pertsona defendatzaileen kontrako indarkeria geldiaraz zezan. Gobernu berriak, hala jarraitzen du idazkari nagusiak, lehenentasuna eman beharko dio pertsona defendatzaileen babesari, eta sistema judizialak bere ahaleginak bikoiztu beharko ditu heriotzen egile materialek justiziaren aurrean kontu eman dezaten¹².

Pertsonen galera konponezin horretatik haratago, proiektu kolektiboa dago, baina hura ezerezean geratu da euren komunitateekiko ahalegin guztiak bateratzen zizutuzten pertsonak, erresistentzia kolektiboaren estrategiak eratzekoan erreferente bihurtu ziren pertsonak eta kemen luzeko prozesuen zuzendaritza partekatua gauzatzen zuten pertsonak galtzean.

Pertsona horiek tentsio handiz bizitzen dute euren egunerokotasuna, hiltzeko edo torturak jasateko beldur baitira, baina bizitza, osasuna, hezkuntza, lurraldea eta euren baliabide naturalak defendatzeko

konpromisoa bereganatu dute, orainaldi bidezkoagoa eta etorkizun hori izango duen Kolonbiaren aldeko apustua eginez. Eginkizun horretan euren bizitza utzi zutenen oroitzapenak aurrera jarraitzeko adorea ematen die, baina triste sentitzen dira aldi berean. Justicia y Paz, PACIPAZ eta Conpaz (Lurraldean Bakea Eratzen) gisako erakundeek sareak ehuntzen dituzte Memoria Kolektiboa berreskuratu, biktimak duin egin, lidergoak sendotu eta, elkarrekin, erronka horiei aurre egiteko estrategiak diseinatu ahal izateko. Hiltzen dituzten defendatzaile eta lider gehienak gizonezkoak dira¹³. Dena den, emakume defendatzaileen hilketetara gerturatzeak torturaz, sexu-indarkeriaz edo ankerkeriaz betetako momentuetara garamatza askotan¹⁴. Hori da, esaterako, Conpaz Sareko Emilsen Manyoma Mosquera liderraren kasua, indarkeria handiz hil baitzuten 2018. urte hasieran, Buenaventuran.

Emakume defendatzaile eta liderren egunerokotasuna oso konplexua da, oztopo guztiak gainditzeaz gain, euren bizitza pertsonala eta familia bateratzen saiatzen baitira euren pentsamenduarekin eta lidergo kolektiboarekin, hori guztia misoginia-kanpainen eta senitartekoen heriotza-mehatxuen edo alaben bortxaketen erdian¹⁵.

9 El Heraldo, 2018ko uztailaren 7a: Santos y Duque firmaron gran pacto nacional por la vida de líderes sociales. Hemen: <https://www.elheraldo.co/colombia/santos-y-duque-firmaron-gran-pacto-nacional-por-la-vida-de-lideres-sociales-516536>

10 El Espectador, abuztuaren 13a: Así están asesinando a los exguerrilleros de las Farc: <https://colombia2020.elespectador.com/pais/asi-estan-asesinando-los-exguerrilleros-de-las-farc>

11 Erakundeak eta Jarrera Kriminalak Ikertzeko eta Desegiteko Unitate Bereziak kasu horietatik 18 bakarrik ezagutzen ditu. Horietatik 9 nahiko aurreratuta dagoen ikerketa-prozesuan daude eta beste 9k bilatzeko eta harrapatzeko agindua dute, 2018ko uztailetik. Ikus: Nazioarteko Egiatzatzaile Batzordearen Idazkaritza Teknikoa (CINEP/PPP-CERAC). Segundo Informe de Verificación de la implementación del Acuerdo Final de Paz en Colombia para los Verificados Internacionales Felipe González y José Mújica, Bogotá, 2018ko uztaila, 17.


12 Nazio Batuen Egiatzatze Misioa Kolonbian, Idazkari Nagusiak Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluari egindako hirugarren txostena, S/2018/723, 2018ko uztailaren 20a.

13 Datuak aldatu egiten dira iturri batetik bestera, baina ehunekoa antzekoa da: homizidio guztien %16 eta erasoen %25 emakumeen kontrakoak dira. HBS Fundazioa (homizidio guztien 56 emakumeen kontra egin ziren, horietatik 18 2016an, beste 26 2017an eta 12 2018ko maiatzera bitartean, 18. or.); Somos Defensores (2017ko 106 hilketetatik %82 gizonak ziren (87 kasu), %15 emakumeak (16 kasu) eta %3 (3 kasu) LGBTI pertsonak, 80).

14 Somos Defensores programaren bidez erregistratutako emakume defendatzaileen 16 hilketa-kasuetatik 4, hau da, laurden bat, muturreko indarkeria erabiliz hil zituzten: Emilsen Manyoma (Cauca Harana), Edenís Barrera Benavides (Casanare), Idaly Castillo Narváez (Cauca), Juana Bautista Almazo Uriana (La Guajira).

15 Erdialdeko Amerikako emakume defendatzaileei gauzatutako estigmatizazio eta eraso bereziei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero —kontinente osora estrapolatu daiteke—, ikus Informe de Agresiones a Defensoras. Hemen: <http://im-defensoras.org/wp-content/uploads/2018/05/INFORME-DE-AGRESIONES-A-DEFENSORAS-2015-2016-FINAL-DEF.pdf>

Álvaro Uribe presidente ohiak eta haren gobernuak (2002-2009) “terro-rismoaren ahots”, “hitzontzi”, “giza eskubideen trafikatzaille”, “adiskide”, “politikero” edo “berritsu” gisako hitzak erabili zituzten defendatzaileei erreferentzia egiteko eta, horien harira, 2009an honako adierazpen hauek egin zituen Margaret Sekaggyak, Giza Eskubideen Defendatzai-leen egoerari buruzko Nazio Batuen errelatoreak: “giza eskubideak defendatzen dituztenen segurtasunik ezaren funtsezko arrazoietakoa bat Gobernuko funtzionarioen aldetik jasaten dituzten estigmatizazio eta epaitze sistematikoak dira”¹⁶. Giza Eskubideen aldeko Nazioarteko Federazioak (FIDH) eta Torturaren Aurkako Mundu Erakundeak (OMCT) kezka berari eutsi diote: “Álvaro Uribe presidente kolonbiarraren iraila-ren 8ko formulak argi eta garbi laburbiltzen du egoera: “Jeneral jauna, har ezazu aireko indarren agintea



Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak liskar-giro horren biktima izan dira herrialde osoan.

Bogotan, pertsona defendatzaileen kontrako erasoak erregistratu dira 32 departamendutatik 31tan eta 324 udalerritan, hau da, ia departamendu guztietan eta udalerrien %28tan. Departamenduen %10 baino ez daude lider eta pertsona defendatzaileen kontrako erailketetatik libre. Pazifikoko eskualdeak dira guztietan zigortuenak; Cauca, Antioquia, Nariño, Cauca Harana,

17 FIDH eta OMCT: *El testimonio obstinado. Informe anual 2007*, esku-
ragarri hemen: [https://www.fidh.org/IMG/pdf/INFORME_2007_ES-
PAGNOL.pdf](https://www.fidh.org/IMG/pdf/INFORME_2007_ES-PAGNOL.pdf). Hitzak egunkari kolonbiarrekoak dira. Ikus 2003ko
irailaren 12ko El Tiempo egunkarian: Uribe insiste en críticas
a ONG: [https://www.eltiempo.com/archivo/documento/MAM-
991377](https://www.eltiempo.com/archivo/documento/MAM-991377). Kolonbiako defendatzaileek jasaten duten estigmatiza-
zioari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Amnesty

International erakundearen Txostena: Transformar dolor en esperanza, defensores y defensoras de derechos humanos en América. Amnesty International (2012): Lehen agintariak adierazi zuen Gobernuaren aurkako batzuk «terrorismoaren zerbitzura zeuden politikero batzuk zirela eta horiek, koldarrez, giza eskubideen banderaren babespean asaldatzen direla, Kolonbian, terrorismoari Indar Publikoak eta herritarrek kendu dioten eremua itzultzen saiatzeko (...). Kolonbian terrorismoa garaitzeko segurtasun-politikaren bat agertzen den bakoitzean, hau da, terroristak ahul sentitzen hasten direnean, giza eskubideen inguruan hitz egitera bidaltzen dituzte euren bozerramaileak”.



Itsasoari irabazitako lurak gutiziatzen dituzte antolakuntza kriminalek eta narkotrafikatzaileek, itsasora irteera baitute.

Choco eta Cordoba departamenduetan kontabilizatzen dira defendatzaileen heriotza gehien. Norte de Santander departamenduan ere erregistratu dira liderren eta pertsona defendatzaileen kontrako kuota altuak¹⁸.

Hirietan ere jasan dituzte erasoak, baina Kolonbiako landa-eremuak dira defendatzaileentzako arriskutsuenak. FARC-EP gerrilla desmobilizatu eta horiek 23 landa-eremutara lekualdatzean, Estatuaren presentziarik gabe geratu dira neoparamilitarrek, ELNren gerrillek eta beste talde armatu antolatatu batzuek nola edo hala bereganatu nahi dituzten lurralde handiak eta gutiziatuak. Lurralde horietan, herriek eta komunitateek euren eskubideak alda-

rrikatzen dituzte, eta liderrek Bake Akordioak ezartzeko lan egiten dute, batik bat koka-hazkuntzak ordezkatzeko helburuarekin.

Oraindik ere zigorgabetasuna da araua, biktimen mina handitu eta indarkeria elikatu arren. Azken 9 urteetan, pertsona defendatzaileen indarkeriazko heriotza guztien %85 zigortu gabe geratu dira, gutxi gorabehera¹⁹. Halere, badira albiste onak ere. La Piedra en El Zapato txostenak dioen moduan, oso positiboa da fiskal nagusiak hori publikoki aitortu izana, defendatzaileen hilketetan nolabaiteko sistematizazio-arrastoak zeudela onartzeari uko egiteak polemika ugari sortu baititu²⁰. El Espectador egunkariari egindako adie-

razpenetan, Martínez Neira fiskal jaunak ziurtatu zuen krimen horiek zenbait jatorri dituztela, baina honako hau adierazi zuen hori esan ondoren: “Autodefentsa-gotorlekuen behin-behineko presentziaren ikuspuntutik kezkagarriak diren fenomenoak identifikatzen ari gara. Izan ere, horiek nolabaiteko sistematikotasunarekin jarduten arituko lirateke herrialdeko hainbat eskualdetan²¹”.

Santosen agintaldian, Fiskaltzak —giza eskubideak defendatzen dituztenen kontrako delituen Ikerketa Unitate Berezia du²²— 2016tik gertatutako homizidio-kasuei eman zien lehentasuna eta, momentuz, 253 kasuetatik 99 argitzea (%39,13) lortu du²³. Edonola ere, 2017ko homizidio-kasuen %70ek ikerketa-fasean jarraitzen dute, eta oraindik ez dira horien inguruko frogak biltzen hasi²⁴. Heriotzen atzean dauden autore intelektualen, planen eta egitura kriminalen inguruko ikerketak falta dira. Ikerketa horiek kapitalak dira, Kolonbian sikario asko baitaude, eta lider eta pertsona defendatzaile gehienak soldatapeko hiltzaileen eskuetan hiltzen dira²⁵.

Zein dira autoreak?

2018ko martxoan, Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioak adierazi zuen indarrezko heriotza horien erdiak baino gehiago parami-

18 Pertsona defendatzaileen eta liderren kontrako erasoek kokapen geografikoa ezagutzeko, ikus 2017ko Urteko Txostena, La Piedra en el zapato, 2018, 80.

19 Ikus Somos Defensores Programa: *Piedra en el Zapato*, Informe Anual 2017, Sistema de Información sobre Agresiones contra defensores y Defensoras de DD.HH. en Colombia SIADDDH, Bogotá, 2018, 89.

20 Somos Defensores Programa: *La Piedra en el Zapato*, 2017ko urteko txostena, Aip. Lib., 28.

21 <https://www.elspectador.com/noticias/judicial/fiscal-admite-algun-grado-de-sistematicidad-en-crmenes-lideres-sociales-articulo-729362> El Espectador, 2017ko abenduaren 19a.

22 Unitate hau 898 Dekretu bidez sortu zen eta, 2017ko azaroan, Martha Cuella izendatu zuten zuzendari. Unitate horrek behar bezala diseinatu behar ditu giza eskubideak defendatzen dituzten pertso-

nen, gizarte- eta politika-mugimenduen, Akordioak ezartzearen eta bakearen eraketaren kontrako homizidioak eta sarraskiak, egintzak edo jarrerak ikertzearekin lotutako estrategiak eta politikak. Horrez gain, egitura kriminalak eta horien babes-sareak identifikatu, eta politika- eta gizarte-testuinguruak aztertu behar ditu, horiek erasoaren patroia komunak ezartzea ahalbidetzen dutenean.

23 Argitu diren 99 kasuetatik 10ek kondena-epaia dute jurisdikzio arruntean eta beste 4k jurisdikzio berezi indigenan; 44 epaiketako fasean daude, 25 ikerketa-fasean, 15 aztertzen ari dira —bilaketa-agindua dute— eta beste bat artxibatuta dago, jokabide atipikoa dela eta. Ikus Somos Defensores, *La Piedra en el Zapato*, Aip. Lib., 26.

24 Ikus: Somos Defensores, *Piedra en el Zapato*, Aip. Lib., 25-27.

25 Informe especial de Derechos Humanos: *Situación de líderes y líderes sociales*. Heinrich Böll Fundazioa, Aip. Cit., 18. Zentzu berean agertu da NBEGKB ere, 2018ko bere txostenean.

litarismoarekin lotuta daudela: “hilketen ustezko autore materialak talde kriminaletako kideak izan ziren, batik bat, horien artean, erakunde paramilitarretako kide ohiak edo egitura zaharrak (54 kasu), talde armatu ilegalak —ELN (4 kasu), Farc-EP ohia (3 kasu), Herri Askapenerako Armada (EPL) (kasu 1)—, talde kriminaletako edo talde armatu ilegalen kide ez diren pertsonak (19 kasu), eta indar publikoko kideak (3 kasu)”²⁶. Iturri beraren arabera, autoretza intelektuala ez argitu izanak areagotu egiten du pertsona defendatzaileen arriskua.

Zentzu horretan, lurraldeetan ekintza paramilitarra larriagotuko delakoaren beldur agertu da Kolonbiako Erakunde Nazional Indigena (ONIC)²⁷. Heinrich Böll Fundazioaren arabera, 2017ko lehen hiruhilekoan, talde paramilitarrek herrialdearen zati handi batean jardun zuten: 32 departamenduetatik 28tan eta 274 udalerritan, modu bereziki larrian horietatik 165etan²⁸. Clan del Golfo eta Las Águilas Negras dira guztietan hedatuenak.

Garapenerako eta Bakerako Azterketen Erakundearen (INDEPAZ) arabera, 2017an narkoparamilitarrak zeuden Chocoko departamenduan, Quibdon, Lloron eta beste 21 udalerritan; Cauca Haranean, Buenaventuran eta beste 10 udalerritan jarduten zuten²⁹. Chocon eta Antioquian are gehiago hedatu dira Kolonbiako Au-

todefentsa Gaitanistak (AGC); Cauca Haranean, berriz, narkotrafikoarekin lotutako tokiko taldeak detektatu dira, AGCz gain. Liderren eta pertsona defendatzaileen kontrako mehatxu gehienak paramilitarismoarekin lotutako erakundeetan (AGC edo Águilas Negras, adibidez) dute jatorria.

Legez kontrako ekonomiak finantzatze-estrategia gisa erabiliz, paramilitarismoak politikaren eta lurraldearen gaineko kontrola gauzatzen du, eta hertsiki lotuta dago botere ekonomikoarekin. Ekonomia horiek narkotrafikoa, kontrabandoa, baliabide publikoen kontrola, estortsioa, legez kontrako meatzaritza, armen eta pertsonen trafikoa, eta prostituzio-sareak hartzen dituzte barne.

Santosen presidentetzaren amaieran, Erakunde Kriminalak Justiziari Men egiteko Legea (1908/18 Legea) onartu zuen Kongresuak. Bakerako Jurisdikzio Bereziak (BJB), Gobernuak FARC-EP taldearekin egindako Bake Akordiotik jaioa, bere eskumenetik kanpo uzten ditu erakunde neoparamilitar horien ikerketa eta epaiketa, baina Lege horrek banda kriminalen epaiketa kolektiboa errazten du, eta lider sozial, giza eskubideen defendatzaile eta sindikalisten kontrako delitu-zigorren iguera aurreikusten du.

Bestalde, eta Heinrich Böll Funda-

zioak adierazi duenez, “Damasko” izeneko doktrina militar berriak bere horretan jasotzen ditu paramilitarismoak gerra irabazteko sortu eta mantendu zituen gidaliburuak eta prozedurak³⁰. Estatuaren Segurtasun Indarrek pertsona defendatzaileen heriotzarekin duten lotura oso kezagarria da. Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioak (NBGEGKB) 2018ko bere txostenean ohartarazi duenez, Poliziako eta Armadako kideak ikertzen ari dira protesta sozialetan gertatu ziren 14 hilketengatik eta, momentuz, bi komandante daude atxilotuta³¹.

Kolonbiako Erakunde Nazional Indigenak (ONIC) ere salatu du Estatuko eragileek euren liderren heriotzetan parte hartu izana. Horien artean dugu Eleazar Tequía Vitucay lider indigena, El Dieciocho Komunitateko Guardia Indigenako³² kide eta koordinatzailea, Embera Katio herriaren lurralde-eremuan, Choco departamenduan. Erakundearen arabera, Armada Nazionalaren eskuetan hil zen, Minga Educativa deiturikoan, herri indigenentzat ikuspegi etnikoko doako hezkuntza eskatzen zuen mugimendua³³.

Zergatik hiltzen dituzte?

Zergatik hiltzen dituzte lider eta pertsona defendatzaileak? Gizarte-mu-

26 Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioa (NBGEGKB), *Informe Anual sobre la situación de Derechos Humanos en Colombia*, 2018ko martxoa. A/ HRC/37/Add.3, 3.

27 Herri Indigenen Giza Eskubideetarako Batzordea: *Balance General de Vulneraciones a los DDHH e infracciones al DIH contra Los Pueblos Indígenas, Colombia 2017-2018*, Kolonbia, 2018, 8.

28 Situación de lideresas y líderes sociales, de defensoras y defensores de derechos humanos y de excombatientes de las Farc-EP y sus familiares, Heinrich Böll Stiftung Fundazioa (HBS), 5.

29 INDEPAZ: *Dejación de armas y sometimiento. XIII Informe-Presencia de Grupos Narcoparamilitares*, oct. 2017.

30 Paramilitarismoa Estatuko Segurtasun Nazionalaren Doktrinatik jaio zen. Gerrako krimenak errepika ez daitezela bermatzeko, beste Segurtasun Demokratiko batekin ordezkatu behar da doktrina hori, «barneko etsaiari» jarraituko ez diona eta lider eta pertsona defendatzaileak gerrillarekin lotuko ez dituenak. «Indar Militarren funtsezko printzipioak amalgamatzen» dituen doktrina gisa iragartzen da Damasko doktrina militarra, «printzipio horiek gida-

tuko baitituzte helburu nazionalak babestuko dituzten ekintzak» (CDOE, d. g.). Indar Militarren arabera, «hasiera berri baten oinarria da Kolonbiako Armadarentzat» (CDOE, d. g.). Ikus: Situación de lideresas y líderes sociales... Aip. Lib., HBS Fundazioa, 10.

31 Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioa (NBGEGKB), *Informe Anual sobre la situación de Derechos Humanos en Colombia*, Aip. Lib., 3.

32 Guardia Indigena komunitateetako kideek osatzen dute; horiek txandak egiten dituzte komunitate indigenen babeserako lanak betetzeko, beti modu baketsuan eta armarik gabe. Guardia Indigena konstituzioan jasota dago eginkizun horiek bete ahal izateko, eta pertsona susmagarriak atxilotu eta justizia indigenaren edo estatuko justiziaren aurrean jar ditzakete. Bestalde, Guardia Cimarrona —komunitate beltzetakoa— ez dago konstituzioan jasota. Aurrerago jorratuko dugu gai hau.

33 Herri Indigenen Giza Eskubideetarako Batzordea: *Balance General de Vulneraciones a los DDHH e infracciones al DIH contra Los Pueblos Indígenas*, Aip. Lib., 32.

gimenduan eta iritzi publikoan behin eta berriz egiten duten galdera da. Arazoa konplexua da; gobernuak, agintariak eta gizarte-erakundeak ez dira elkar koordinatzen. Gainera, ez dira ados jartzen heriotza bortitzen zifrak zehazteko orduan, are gutxiago arrazoiei dagokionez, eta gauza bera gertatzen da kazetariekin³⁴, gizarte-erakundeekin³⁵ eta nazioarteko erakundeekin³⁶. Sintesi modura, honako arrazoi hauek eman daitezke: lurralde lehengoratzeko prozesuen edo komunitateen itzuleraren lidergoa, gerrak eragindako lekualdaketen ondoren; legez kontrako ekonomien, krimen antolatuen edo ustelkeriaren salaketa; norbere eskubideen nahiz eskubide kolektiboen aldarrikapena, hala nola nortasuna, lurraldea, baliabide naturalak eta biktimak duin egitea; edo Bake Akordiotik eratorritako politikak babestea, batez ere koka-hazkuntzak ordezkatzeari dagokionez, oraindik ere izugarritzko indarkeria eragiten baitu Kolonbian. Pertsona horiek hiltzea, pixkanaka, Kolonia anitz eta bidezkoagoa eratzeko aukerak hiltzen joatean da.

Herriaren Defentsa Erakundearen arabera, pertsona defendatzaileek ekonomia, gizarte, kultura eta ingurumen arloetako eskubideak aldarrikatzen dituztenean eta "beste eragile batzuek" euren interesak mehatxatuta ikusten dituztenean, agerleku arriskutsua sortzen da

defendatzaile horientzat. NBGE-GKBk adierazi duenez, pertsona defendatzaileen hilketak gertatzen diren testuinguruak hiru ezaugarri hauek izaten ditu gehienetan: legez kontrako ekonomien presentzia (drogen trafikoa, legez kontrako hazkuntzak, meatzaritza ilegala, mikrotrafikoa, estortsioa); indarkeria endemikoaren mailak gaintitzen dituen homizidio-tasa udalerrian (10 hilketak 100.000 biztanle bakoitzeko); eta pobrezia-tasa multidimentsionala, batez besteko nazionala baino altuagoa³⁷.



Puente Nayero espazio humanitarioa. Umeak berriz ere kaleetan jolasten beldurrik gabe.

34 Gaiari buruzko prentsa-artikulu pilo bat idatzi dira. 2018ko uztailaren 15ean, adibidez, Semana aldizkariak lehen orrialdean argitaratu zuen gaia, honela izeneko artikulu luze batekin: ¿Quién los está matando? Más de 80 líderes sociales han sido asesinados en el país este año: uno cada tres días ¿qué está pasando?

35 Azken urteetan, hainbat erakundek homizidio-kasuak barne hartzen dituzten txostenak egin dituzte eta giza eskubideen defendatzaile eta lider sozialen kontra gauzatuak indarkeriaren arrazoiei buruzko azterlanak eskaini dituzte: Aberriaren Martxa, Gatazken Ikerketarako Baliabideen Zentroa (CERAC), Ikerketa eta Hezkuntza Popularraren Zentroa (CINEP), Kolonbiako Juristen Batzordea (CCJ), Somos Defensores, Kolonbiako Unibertsitate Nazionalaren Politika Azterketarako eta Nazioarteko Harremanetarako Institutua (IEPRI), Nekazaritzako Ondasunen Eskubideak Lehen-goratzeko eta Arautzeko Behatokia, José Alvear Restrepo Abokatu-tuen Taldea, Garapenerako eta Bakerako Azterketen Erakundea (INDEPAZ), eta Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Behatokia, Torturaren Aurkako Mundu Erakundearena (OMCT) eta

Giza Eskubideen Nazioarteko Federazioarena (FIDH). Heinrich Böll Stiftung Fundazioak (HBS) 5 arrisku-faktore aztertzen ditu defendatzaile, lider, borrokalari ohi eta horien senitartekoen kasuan: Fenomeno paramilitarren presentzia eta birkonfigurazioa, matxinatu-talde armatuen presentzia, Hondar Talde Armatu Antolatu-tuen presentzia (GAOR) eta Damasko doktrina militarra (*Situación de lideresas y líderes sociales, de defensoras y defensores de derechos humanos y de excombatientes de las Farc-EP y sus familiares*, 5. or. eta hurrengoak).

36 Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioa (NBGE-GKB), *Informe Anual sobre la situación de Derechos Humanos en Colombia*, Aip. Lib., 3 eta hurrengoak.

37 Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioa (NBGE-GKB), *Informe Anual sobre la situación de Derechos Humanos en Colombia*, 2018 martxoa. A/ HRC/37/Add.3, 4.

38 Somos Defensores: *Piedra en el zapato*, Aip. Lib., 99.

39 Heinrich Böll Fundazioa: *Informe especial de Derechos Humanos: Situación de lideresas...* Aip. Lib., 7.

II. Komunitate indigenen eta afrokolonbiarren liderrak

2018ko urtarriletik maiatzera hil dituzten eta lidergo-eginkizunak betetzen zituzten defendatzaile gehienak jatorri afrikarreko pertsonen, indigenen eta nekazarien komunitateetakoak ziren⁴⁰. Eraildako 77 liderretatik 26k jatorri nekazaria, indigena eta afrikarra zuten, eta nekazarien, etnien eta herrien goi-bilera osatzen duten erakundeetako kide ziren⁴¹. Ez da datu harrigarria; izan ere “historian baztertzaila izan den Estatuan, indigenak, nekazariak eta jatorri afrikarreko pertsonak dira indarkeriak gehien kalte-tu dituen gizarte-sektoreak, eta, beraz, horien liderrek ere beste inork baino eraso gehiago jasaten dituzte”⁴².

Aberriaren Martxa Prozesu eta Erakunde Sozialen Gizarte eta Politika Koordinazioak beste inork baino liderren hilketa gehiago jasan ditu (10) eta guztietan zigortuena izan da, Kolonbiako Erakunde Nazional Indigenarekin (8) batera. Horiez gain, liderrak galdu dituzte, halaber, Komunitate Beltzen Prozesuak (4), Herrien Biltzarrak (2) eta Ríos Vivos Mugimenduak (2). Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak (2016-2017) bere kezka agertu zuten talde etnikoetako liderren kontrako indarkeriak gora egin zuenean, batik bat Choco, Cauca, Cauca Harana, Antioquia, Putumayo eta Nariño komunitateetan⁴³.

Liderren %10 baino gehiago Kolonbiako Erakunde Nazional In-

digenako indigenak dira. Choco departamenduan, kaltetuenetako bat, Aulio Isamara Forastero (Docasina komunitateko gobernatzaile indigena) eta Esquivel Manyoma (Embera Dobida herriko gobernatzaile ohia eta gidari espirituala) hil zituzten⁴⁴. Gobernatzailearen homizidioa (2017ko urriaren 30ean) eta ELNren mehatxuak direla-eta, Catrú babesleku indigenako 9 komunitateetako 309 pertsonak (113 familia) euren lurraldetik ihes egin zuten.

Kolonbiako Estatuak ez dio oraindik erantzun eraginkorrik eman giza eskubideen lider eta defendatzaileen erailketari dagokion arazo sozial larriari. 2017an, Barne Ministerioaren Babeserako Unitate Nazionalak —5.000 eskolta inguru ditu eta murrizketak izan ditu aurrekontuetan— 6.094 babes-eskaera izapidetu zituen, horietatik 36 arrisku handikoak, 3.773 ezohiko arriskukoak eta 2.285 arrisku arruntekoak. Eskaera gehienak Bogotan egin ziren eta, haren ondoren, Cauca Hara-



Yayla Yamepy, defendatzailea eta Mujer y Vidako.

40 Ikus Heinrich Böll Fundazioa, *Informe especial de Derechos Humanos: Situación de lideresas...* Aip. Lib., 18.

41 Ikus Heinrich Böll Fundazioa, *Informe especial de Derechos Humanos: Situación de lideresas...* Aip. Lib., 18.

42 Somos Defensores: *Piedra en el zapato*, Aip. Lib., 99.

43 2018ko uztailaren 19ko jakinarazpena: Comisión Interamericana

CIDH expresa su alarma por los asesinatos y condena la violencia contra personas defensoras de derechos humanos y líderes sociales en Colombia. <http://www.oas.org/es/cidh/prensa/comunicados/2018/155.asp>

44 Herri Indigenen Giza Eskubideetarako Batzordea: *Balance General de Vulneraciones a los DDHH e infracciones al DIH contra Los Pueblos Indígenas*, Colombia 2017-2018, Bogota 2018, 18.



Wounaan Pobor komunitateko irakaslea.

nean, Antioquian, Caucan, Nariñon eta Chocon⁴⁵.

Unitate horrek erakunde eta mugimendu sozialetako liderren eta kolektiboen babeserako programa aplikatu behar du⁴⁶. Dena den, oraindik ez du guztiz aplikatu ikus-

pegi kolektiboa eta prebentiboa⁴⁷, eta erantzun erreaktibo eta indibidualean finkatuta jarraitzen du. 2017an, eskoltak zituzten 4 defendatzaile hil zituzten, horiek eskoltarik gabe zeudenean, hain zuzen ere⁴⁸. Azkenik, 2017ko abenduan Herritarren Defentsa Erakundearen

erantzukizunpean sortutako Alerta Goiztiarren Sistemak⁴⁹ Barne Ministerioarekin koordinatu behar du babes eraginkorra eskaintzeko.

Bake Akordioaren Nazioarteko Egiatzatze Batzordearen Idazkaritza Teknikoaren ustez, erronka handiei erantzun behar zaie lider eta pertsona defendatzaileen kontrako indarkeria eteteko. Lehenik eta behin, pertsona defendatzaileen eta lider sozialen segurtasun-krisia aitortu behar da. Bigarrenik, instituzionaltasun berria⁵⁰ doitu eta Bake Akordiotik eratorritako planak⁵¹ eta programak jarri behar dira martxan, aurrekontu egokiarekin. Hirugarrenik, Polizia eta agintari zibilak modernizatu behar dira, babes-arloko erantzukizun berriak bete ahal izateko⁵².

Dekretu⁵³ batzuk eman eta erantzukizun berriak esleitu zaizkie erakundeek, horiek elkarrekin koordinatu eta beharrezkoak diren baliabideak izan ditzaten. Barne Ministerioari dagokio mekanismo horien lidergoa gauzatzea, eta Babeserako Unitate Nazionala du horretarako. Oso garrantzitsua eta premiazkoa da Komunitate eta Lurraldeen Segurtasun eta Babes Programak beharrezkoak diren baliabideekin eta koordinazio eraginkorrenekin funtzionatzea; bertan parte hartzen dute Barne Ministerioak, Justizia eta Defentsa

45 Ikus Heinrich Böll Fundazioa, *Informe especial de Derechos Humanos: Situación de lideresas...* Aip. Lib., 24.

46 Teorian, babes kolektiboa 2015eko 1066 Dekretuan arautzen da eta, 2017an, 2078 Dekretu bidez, hark babes kolektiborako bide teorikoa ezartzen baitu: <http://es.presidencia.gov.co/normativa/normativa/DECRETO%202078%20DEL%2007%20DE%20DICIEMBRE%20DE%202017.pdf#search=2078>

47 Gorte Konstituzionalak babes kolektiborako programa eskatu du hainbat autotan eta epaitan.

48 Ikus Heinrich Böll Fundazioa, *Informe especial de Derechos Humanos: Situación de lideresas...* Aip. Lib., 22.

49 Somos Defensores erakundearen 2017ko txostena, *Piedra en el zapato*. Aip. Lib., 32 eta hurrengoak.

50 Sortutako instantzia guztiak eta horien erantzukizunak ikusteko, ikus Somos Defensores programaren *Piedra en el zapato*, Aip. Lib., 17 eta hurrengoak.

51 Erakunde kriminalen kontrako Ekintza Plan Iraunkorra, Segur-

tasun Bermeen Batzorde Nazionalarena; Proiektuen Jarraipen Sistemaren Segurtasun Plan Estrategikoa, neurri materialak eta immaterialak eta liderren estigmatizazioaren kontrako kanpaina barne hartzen dituena.

52 Nazioarteko Egiatzatze Batzordearen Idazkaritza Teknikoa (CINEP/PPP-CERAC): *Segundo Informe de Verificación de la implementación del Acuerdo Final de Paz en Colombia para los Verificadores Internacionales Felipe González y José Mújica*, Bogota, 2018ko uztaila, 9.

53 Honako dekretu hauek eman dira: 1581 Dekretua, «pertsona, talde eta komunitateen bizi-, osotasun-, askatasun- eta segurtasun-eskubideak ez urratzeko politika publikoari» buruzkoa; 2078 Dekretua, «taldeen eta komunitateen bizitzeko, osotasunerako, askatasunerako eta segurtasunerako eskubideen babes-bide kolektiboa» jasotzen duena; 2252 Dekretua, «gobernatzailleek eta alkateek Errepublikako presidentearen eragile gisa betetzen duten eginkizunari buruzkoa, erakunde eta mugimendu sozial eta komunaletako liderren, eta arrisku-egoeran dauden giza eskubideen eta defendatzaileen babes indibidualari eta kolektiboari dagokionez».

Ministerioek, Herriaren Defentsa Erakundeak eta Fiskaltzak⁵⁴.

Bestalde, Estatuak ez du aintzatespen formalik egin edo, are gutxiago, estrategiarik ezarri komunitate indigenek eta jatorri afrikarreko komunitateek modu autonomoan garatu dituzten norbere babeserako eskemak artikulatzeko. Proiektatzen diren babes-programak ez dira guardia indigena, cimarrona edo nekazariekin artikulatzen⁵⁵, eta ez dute etnia-, lurralde- edo genero-ikuspegirik. Datu hori oso kezkarria da, eta honako hau berresten du Unitateko zuzendari ohiak berak, Diego Morak: “babes-neurriak dituzten pertsona gehienak komunitate beltzetako edo indigenetako kide dira”⁵⁶. Babes-eskema gorenak eskolta bidez blindatutako automobila, balen kontrako txalekoa eta larrialdietarako telefonoa hartzen ditu barne.

Guardia Indigena komunitateetako kideek osatzen dute; horiek txandak egiten dituzte komunitate indigenak babesteko lanak betetzeko, beti modu baketsuan eta armarik gabe. Guardia Indigena konstituzioan jasota dago eginkizun horiek bete ahal izateko, eta pertsona susmagarriak atxilotu eta justizia indigenaren edo estatuko justiziaren aurrean jar ditzakete. Bestalde, Guardia Cimarrona —komunitate beltzetakoa— ez dago konstituzioan jasota. Azkenik, Segurtasuna Bermatzeko



Luis Eduardo Gonzales Samany eta Dora Sepulveda defendatzaileak, El 20 babeslekura bidean.

Batzorde Nazionala pertsona defendatzaileak babesteko goi-mailako erakunde garrantzitsua da; Bake Akordioari jarraikiz sortu zen, Santos presidentearen 154 Lege Dekretu bidez. Batzorde horren xedea da “homizidioen eta sarraskien erakunde eta jarrera kriminal erantzuleak desagiteko politika publiko eta kriminala diseinatzea eta haren jarraipena egitea, horiek giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen, gizarte-mugimenduen edo mugimendu politikoen kontra jarduten dutenean, edo Akordioen ezarpenean eta bakearen eraketan parte hartzen duten pertsonen kontrako mehatxuak edo erasoak gauzatzen dituztenean, baita paramilitarismoaren oinordeko

gisa izendatu diren erakunde kriminalak eta horien babes-sareak ere”⁵⁷. Herrialdeko erakundeen arabera, Santos gobernuak paramilitarismoaren inguruan sakon eztabaidatzeko agertu zuen asmoa berehala desagertu zen⁵⁸. Errepublikako presidentek parte hartzen duen Batzorde hori 6 aldiz bildu zen Santos gobernuaren agintaldian; hark 4 azpibatzaorde sortu zituen genero- eta etnia-ikuspegiko Erakunde Kriminalen Kontrako Ekintza Iraunkorreko Plana sortzeko, teoriaraino ez izan arren⁵⁹. Somos Defensores programak argi eta garbi agertu zuen, gobernu berria iristean, ezinbesteko esparru hori desegin edo desagertzeko arriskuaren inguruko kezka⁶⁰.

54 Programak honako hauek hartzen ditu barne: Segurtasun Programa Integral bat lurraldeetako komunitateentzat eta erakundeentzat (Barne Ministerioa), Bake eta Bizikidetzat Eragile Komunitarioak (Barne Ministerioa eta Justizia Ministerioa), gatazkak eragindako landa-komunitateen Babeserako Protokolo Berezia (Barne Ministerioa), giza eskubideen landa-lurraldeetako erakundeen salatzegaitasuna sendotzeko programa (Barne Ministerioa); Erreakzio Azkarreko Prebentzio eta Alerta Sistema (Herriaren Defentsa Erakundea, Defentsa eta Fiskaltza).

55 Nazioarteko Egiatzatze Batzordearen Idazkaritza Teknikoa (CINEP/PPP-CERAC): *Segundo Informe de Verificación de la implementación del Acuerdo Final de Paz en Colombia para los Verificadores Internacionales Felipe González y José Mújica*, Bogota, 2018ko uztaila, 11.

56 Babeserako Unitate Nazionalaren zuzendari ohi Diego Mora jaunari egindako elkarrizketa, Bogota, 2018ko uztaila.

57 154 Lege Dekretua, 2017ko otsailaren 3koa, eskuragarri hemen: <http://es.presidencia.gov.co/normativa/normativa/DECRETO%20154%20DEL%2003%20FEBRERO%20DE%202017.pdf>

58 Ikus Somos Defensores, *Piedra en el Zapato*, Aip. Lib., 20.

59 Batzordearen 6 saioretan, azpibatzaordea sortu zen lurraldeetako arazo zehatzak jorratzeko. Horrez gain, 4 batzorde tekniko sortu ziren sargaia eratu eta Erakunde Kriminalen Kontrako Ekintza Plana Iraunkorra (PAPCOC) egin ahal izateko, betiere eskualdera, generoaren eta etniaren ikuspegiari, finantziario-iturrietara, araudi-aldaketetara eta erantzun instituzionalen inpaktura bideratuta. Ikus: Nazioarteko Egiatzatze Batzordearen Idazkaritza Teknikoa (CINEP/PPP-CERAC): *Segundo Informe de Verificación...* Aip. Lib., 16.

60 Ikus Somos Defensores, *Piedra en el Zapato*, Aip. Lib., 20.



Emaus Lemos defendatzailea, Lloro ibaian.

III. Lurraren eta lurraldearen defentsa herri etnikoen aldetik

Lurraldea hertsiki lotuta dago gatazka armatuarekin. Hala adierazi zuen Kolonbiako Gorte Konstituzionalak 2009an, Kolonbiako herri indigenak⁶¹ eta jatorri afrikarrekoak⁶² desagertu eta desintegratu izanaren arrazoi nagusiak aztertu zituenean. Gorteak berak azaldu zuen moduan, Estatuak gerran eskaintako babesik ezak baitaila-eremu eta espoliazioaren xede bihurtu zituen herri indigenen, beltzen, raizalen eta palenkeroen lurralde kolektiboak.

Talde armatu ilegalek, paramilitarrek eta gerrillek lurralde horiei eraso egin diete hainbat urtetan, eta legez kontrako jarduerak garatzeko erabili dituzte horien lurrak eta ibaiak, biztanleriaren gaineko kontrol soziala inposatuz. Askotan, Indar Publikoak ere denboraldi luzez militarizatu ditu, gerrillaren edo delinkuentziaren kontra borrokatzeko argudioarekin. Aktore armatuek komunitateen bizibideak, animaliak eta hazkuntzak bereganatu zituzten, eta, gainera, fumigazioek eragindako kalteak jasan behar izan

zituzten, aldez aurretiko kontsultarik egin gabe eta legez kontrako hazkuntzak deuseztatzeko aitzakiarekin, hori ere aktore armatuen kontrolpean.

Gerran bertan, komunitate etnikoek giza eskubideen kontrako indarkeria larria eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketak jasan zituzten. Kolonbiako Erakunde Nazional Indigenaren (ONIC) arabera, herrialdeko indigena guztien %18 (226.795 pertsona) izan dira gerraren biktimak⁶³. Komunitate beltzek ere jasan dituzte sarraskiak, derrigorrezko errekrutatzeak, sexu-indarkeria, tortura, exekuzio estrajudizialak, lur-gabetzeak eta desagertze behartuak. Biktimen Erregistro Bakarraren arabera, komunitate beltzetako 765.598 pertsona izan dira gerraren biktimak⁶⁴.

Hondamen sostengatu eta sistematikoki hori argi eta garbi islatzen da Kolonbian bizi diren 1.392.623 indigenen (biztanleria osoaren %3,4) egoera dramatikoan. Herrian erregistratuta dauden 102 herri indigenetatik 31

hondamen-egoeran daude, 36 desagertze-arriskuan eta beste 67 desagertze⁶⁵. Herritar afrokolonbiarrek ere marjinazio eta diskriminazio historikoak bizi dituzte. Euren buruak beltz gisa hartzen dituzten 4.311.757 pertsonen artean (Kolonbiako biztanleria osoaren %10,62⁶⁶) gehienak pobrezian murgilduta bizi dira, eta berdintasunik ezaren eta indarkeriaren ondorioak jasaten dituzte. Biztanleria indigenarekin batera, horien egoera humanitarioa da Kolonbiako kritikoenetako bat.

Herri indigenek aktore armatuen indarkeria eta euren eskubideetako bidegabekeriak jasan dituzte, horiek legez aitortuta egon arren. 1991n, 21 Legea onartu zen eta hark mundu osoko herri indigenen eta tribalen alde aurretiko kontsulta-eskubidea txertatu zuen legegida nazionalera⁶⁷, Nazio Batuen Erakundeak LANeren 169 zenbakiko Hitzarmen bidez aitortzen duen eskubidea. Funtsezko eskubide hori aitortzean —Kolonbiako Errepublikaren Konstituzioaren oinarrietan jasotzen da⁶⁸—, herri horietako

61 Gorte Konstituzionalaren 004/09 autoa.

62 Gorte Konstituzionalaren 005/09 autoa.

63 Herri Indigenen Giza Eskubideetarako Batzordea: *Balance General de Vulneraciones a los DDHH...* Aip. Lib., 11. Oharra: ONIC erakundearen arabera, eta Biktimen Erregistro Bakarrak 1985etik 2017ko abenduaren 31ra jasotako datuen arabera, Kolonbiako herri indigenek 8.580 homizidio, 2.096 indarrezko desagertu, 419 bahiketa, 196 tortura-egintza, 8.861 mehatxu eta 194.882 indarrezko lekualdaketa jasan dituzte, besteak beste. Ikus Kolonbiako Erakunde Nazional Indigenaren Balance General de las vulneraciones... Aip. Lib., 12. Biktimen Erregistro Bakarrean, 211.243 biktima indigena erregistratu dira. Ikus Biktimen Erregistro Bakarra: <https://www.unidadvictimas.gov.co/es/registro-unico-de-victimas-ruv/37394>

64 Biktimen Erregistro Bakarra: <https://www.unidadvictimas.gov.co/es/registro-unico-de-victimas-ruv/37394>

65 Gorte Konstituzionalaren 004/09 eta 382/10 autoak.

66 DANE, Colombia una nación multicultural: su diversidad étnica, 2007ko ekaina. Kolonbiak 41.468.384 biztanle ditu guztira: 4.858 Rom herriari dagozkio, 7.470 Palenkero herriari; eta 34 milioi baino gehiago talde etnikorik gabeko pertsonak dira. Ikus: <https://>

www.dane.gov.co/files/censo2005/etnia/sys/visibilidad_estadistica_etnicos.pdf

67 Komunitate indigenen eta beltzen lurraldeetan baliabide naturalak ustiatzeko erregelamendua ez zen 1998ra arte iritsi (1320 Dekretua, 1998koa).

68 Aldez aurretiko kontsultaren derrigortasunak Kolonbiako Errepublikaren 1991ko Konstituzio Politikoaren honako artikulua hauetan du jatorria: 1. art.: Kolonbia errepublika unitario gisa definitzea, deszentralizatua, bere lurralde-elkarteen gaineko autonomia duena, demokratikoa, parte-hartzailea eta pluralista; 2. art.: Estatuaren helburua zehaztea, hau da, eragiten dieten erabaki guztietan parte hartzeko aukera eskaintzea; 7. eta 70. art.: Aniztasun etnikoa eta kulturala aitortzea, balio konstituzional gisa eta nazionalitate kolonbiarraren oinarri gisa; 13. art.: Talde diskriminatuen edo marjinaletuen aldeko neurriak hartzea; 329. eta 330. art.: Komunitate Indigenen ordezkariak lurralde-erakunde indigenen osararen eta euren lurraldeetako baliabide naturalen ustiapenean parte hartzea; 55. art. irag.: Komunitate beltzetako ordezkariak komunitate beltzei lurraldeak aitortzen dizkien eta horien nortasun kulturala babesteko eta garapen ekonomiko eta sozialerako mekanismoak ezartzen dituen Legearen osararen parte hartu dezatela.



Quibdo Medellin errepidearen zabaltzeak eragindako lur-jausiak 13 hildako utzi zituen eta embera chami komunitatearentzat sakratua zen lurra suntsitu zuen.

pertsonak, erakundeak, ondasunak, lana, kulturak eta ingurumena babestu nahi ziren, horien gizarte, kultura, erlijio, espiritu eta erakunde alorretako balioak eta jardunbideak aitortu eta babesteaz gain.

Lege horrek konstituzio-maila du eta, beraz, gailendu egiten da barne-antolamendu juridikoan (1991ko Konstituzio Politikoaren 3. art.). Dena den, ondorengo garapen arau-emaileak nabarmen mugatzen ditu haren ondorioak eta eraginkortasuna⁶⁹.

Bi urte geroago, 1993an, 70 Legea onartu zen Kongresu Nazionalan, herri etnikoen eskubideak egiturat-

zen dituen funtsezko araua. Hala, bada, lege horrek Kolonbian bizi diren kultura guztien (indigenak, beltzak, raizalak, palenkerok eta mestizoak) aniztasun etnikoa eta kulturala eta berdintasunerako eskubidea babestea du helburu. Honako hau da haren helburu nagusia: "Pazifikoaren ibaiertzetako eremuetan lugorriak okupatu dituzten komunitate beltzak aitortzea, horien ekoizpen-jardunbideak eta jabetza kolektiborako eskubidea aintzat hartuta". Era berean, komunitate beltzek talde etniko gisa dituzten nortasun kulturala eta eskubideak babesteko mekanismoak ezartzen ditu, baita horien garapen ekonomikoaren eta sozialaren sustapena ere.

Herri indigenen kasuan, 1088 Dekretua onartu zen 70 Legearekin batera; hark Kabildo Erakundeak eta/edo Agintari Tradizional Indigenak sortzeko aukera eman zuen, komunitate etnikoei ordezkaritza instituzionala emanez. 1995ean, komunitate indigenen lurrak izendatu zituzten (2165 Dekretua) aintzatespen-prozesu horren eraginez. Lur eta Lurralde Indigenen Batzorde Nazionala urtebete beranduago iritsi zen, Herri Indigenei Laguntzeko Programa bereziarekin batera⁷⁰.

Afro komunitateen kasuan, komunitateari jabetza kolektiborako eskubidea aitortzeko prozedura 1995ean ezarri zen, 1745 Dekretuaren bitartez, eta titulu hori izan zezaketen eremuei "Komunitate Beltzen Lurrak" deituko zitzaizela erabaki zen. Eskubide hori eraginkor egiteko, komunitate bakoitzak lurralde kolektiboa administratzeko Kontseilu Komunitarioa osatu behar zuen eta, definizioz, hark besterenezina, preskribaezina eta enbargaezina izan behar zuen.

Horrez gain, 70 Legeak erakundee-tan parte hartzeko mekanismoak ezarri eta herri etnikoen determinazio askerako oinarriak finkatu zituen. Geroago, Gobernu Nazionalaren eta herri horien arteko elkarriketa-erakundeak sortu ziren, horien eskubideei buruz hitz egiteko, hain zuzen ere⁷¹.

Hala eta guztiz ere, komunitateen alde zaurerako kontsultarako funtsezko eskubidea guztiz zapalduta geratu da une garrantzitsuetan. Ga-

69 2010eko 01 Presidentetza Zuzentzarauak ez die indar loteslerik ematen kontsultaren emaitzei eta proiektuan nahastutako alderdien arteko akordioari dei egiten dio: «Aldez Aurretiko Kontsultaren funtsezko eskubidea bermatzea derrigorrezkoa da adierazitako kasuetan, eta Barne Ministerioaren eta Justizia Ministerioaren funtzioetan laguntzen du, talde etnikoen gaiei eta eskubideei buruzko politikak diseinatzeko eta gauzatzeko orduan. Nazioarteko akordioetan aurreikusitako kasuetan Aldez Aurretiko Kontsulta-prozesua egitea derrigorrezkoa izan arren, Talde Etniko Nazionalak ezin dute proiektuen garapena mugatu funtsezko eskubide hori gauzatzean. Edonola ere, Aldez Aurretiko Kontsul-

ta-prozesua alderdien arteko akordioa lortzen saiatuko da proiektuaren ezaugarriei eta ondorioei dagokionez" (azpimarratuta dagoena gurea da).

70 1396/96 Dekretua.

71 Komunitate Indigenen kasuan, Hitzarmen Mahai Iraunkorra da elkarriketarako eremua, 1996ko 1397 Dekretu bidez sortua; komunitate beltzen eta afrokolonbiarren kasuan, berriz, Goi Mailako Kontsulta Batzordea (1995eko 2248 Dekretu bidez sortua) eta Komunitate Beltzen Batzorde Pedagogiko Nazionala izango lirateke.

rapen Plan Nazionalan elkarriketa eta partaidetza guztietatik kanpo geratu dira, baita politika publikoen diseinuan ere, eta, beraz, horiek ez dute kulturarteko ikuspunturik.. Biktimen Legean⁷² ere ez zuten parte hartu komunitate etnikoek.

Hilketa- eta mehatxu-boladak direla-eta, komunitate osoek alde egin behar izan dute euren lurretatik, hiri handietan segurtasuna bilatzera. Gorte Konstituzionalaren Ebazpenak⁷³ neurri jakin batzuk ezartzen zituen lekualdatutako biztanle afrokolonbiarrak babesteko, horiek behin eta berriz jasan baitzituzten giza eskubideen urraketak, baina Gobernu Nazionalak ez zuen Ebazpena bete, komunitateei egindako mina errepikatuz eta horien zaurgarritasuna areagotuz⁷⁴.

Azken lau hamarkadetan bezala, liderrek eta pertsona defendatzaileek jasaten duten indarkeria hertsiki lotuta dago lurraldearen defentsarekin. 2006tik 2011ra, euren lurraldeak eskatzen zituzten 71 lider hil zituzten, gutxienez, 14 departamentutan⁷⁵. Izendapen desberdinak erabili arren —"lurralde itzultzearen kontrako armada", adibidez⁷⁶—, paramilitarrek mehatxuak egin dituzte eta egiten jarraitzen dute lurralde itzultzeko erreklamazio-prozesuak babesten dituzten liderren eta pertsonen kontra.

Oro har, komunitate etnikoetako liderrek erasoak jasaten dituzte (1) erauzketa-proiektuak edo proiektu

hidroelektrikoak instalatzearen kontra agertzen direnean, (2) narkotrafikoarekin lotutako ekonomien presentzia salatzen dutenean edo legez kontrako hazkuntzak ordeztuko lan egiten dutenean, edo (3) euren lurraldeak defendatzen dituztenean, lur-gabetzeak eta lekualdaketa gerarako arma gisa erabiltzen dituzten aktore armatuen kontra.

1) Erauzketa-proiektu eta proiektu hidroelektriko handiak instalatzearen kontra agertzen direnean.

Komunitate, pertsona defendatzaile, agintari indigena eta afrokolonbiarrak hainbat urtetan salatu dute legezko eta legez kontrako meatzaritzaren aldetik jasan duten lurraldeen inbasioa. Euren lurraldeetan eman diren meatzaritza-titululu anitzen kontra egiten jarraitzen dute, baita partikularrei, enpresa nazionaleri eta multinazionaleri titululu osoak edo partzialak ematearen kontra ere⁷⁷. Tokiko gobernuek atzerako hondeamainen sarrera baimentzen dutela salatzen dute, baita Indar Publikoak bere kontrol-eginkizuna betetzen ez duela ere.

Komunitate Beltzen Prozesuko lider Francia Márquez ere hiltzen saiatu dira, meatzaritzako megaproiektuen jabe, bazkide eta aliatu diren erakunde kriminalak salatzeagatik. Gaur egun, Babeserako Unitate Nazionalaren segurtasun-eskema du. Bere ustez, ez dute bakerik izango Kolonbiak jasaten dituen egiturazko arrazismoak, garapen-ereduak, bazterkeriak eta ustelkeriak bere horretan jarraitzen duten bitartean.

Nola egiten dute jendea bakea posible dela sinestarazteko, pertsona asko biktima bihurtzen, komunitateak hiltzen, jendea euren lurretatik kanporatzen, lurraldeak enpresa multinazionaleri ematen eta ingurumena hondatzen jarraitzen badute? Zer nolako bakea da hori?"

(Francia Márquezek Habanako Negoziazio Mahaian esandako hitzak)⁷⁸.

72 Lege-mailako 4635 Dekretua.

73 Gorte Konstituzionalaren 005/09 autoa

74 Gay McDougall aditu independenteak egindako gutxiengo gaiei buruzko txostena, (2011). Eskuragarri hemen: <http://www.acnur.org/t3/fileadmin/scripts/doc.php?file=biblioteca/pdf/7476>

75 Biktimizekiko Memoria eta Elkartasun Egunaren oroimenean, Herriaren Defentsa Erakundeak ikerketak bizkortzea eta arduradunak zigortzea eskatu zuen. Herriaren Defendatzailea, 2012ko apirilaren 9a.

76 *El Espectador* egunkaria: ¿Un ejército anti-restitución?. 2012ko uz-

taila, eskuragarri hemen: <https://www.elespectador.com/noticias/politica/un-ejercito-anti-restitucion-articulo-357427>

77 Bizitza, lurraldea, bakea eta Akordioak bete daitezela defendatzeko Mugimendu Indigena nazionalak honako hau salatu zuen: «(...) lurralde indigenetan dauden 396 meatzaritza-tituluetatik eta 927 eskaeretatik (...) babesleku indigenetako 28.410.812 hektarea esleitu zaizkie meatzaritza-enpresei (...) 27 babesleku esleitura zeuden eremuaren %50ean, eta horietatik 14tan erabateko tituluak eman dira».

78 Kontziliazio Nazionalerako Batzordea: *El Corazón de las víctimas, aportes a la verdad para la reconciliación en Colombia*, Bogotá, 2016. Herri beltz afrokolonbiarren biktimizazioari buruzko kapitulua, 61.

Erauzketa-eredu ekonomikoak herri etnikoen berbiktimizazioa eragiten du, eta kalte larriak sortzen ditu horien aspaldiko lurraldeetan. Honako hau dio FORO Fundazioak gaiaren inguruan egindako azterketak: "Choco departamendu osoan sortu den meatzaritza-eremu estrategikoak bere gain hartu ditu betidanik komunitate beltzek eta herri indigenek okupatu dituzten lurrak, hau da, horiei esleitutako lurrak" eta "ez datoz bat indigenen eta jatorri afrikarreko pertsonen komunitate askok 1993ko 70 Legeari jarraikiz eratu dituzten bizitza- eta etnograopen-planen edukiarekin. Izan ere, euren lurralde kolektiboaren boka-

zio ekoizlea zehazterakoan, plan horiek alde batera uzten dute eskala handiko meatzaritza"⁷⁹. Aktore armatuek, edo gerraren aitzakiarekin, euren lurretatik kanporatutako pertsonen %10 Estatuak berak esleitutako eta aitortutako lurralde kolektiboetan bizi ziren⁸⁰.

2) Narkotrafikoarekin lotutako ekonomien presentzia salatzen dutenean edo legez kontrako hazkuntzak ordezteko lan egiten dutenean.

Wilfrido Landa "Rescate de las varas" Kontseilu Komunitarioko liderra da, legez kontrako hazkuntzarik gabeko Kolonbiako lehen lurraldea. Wilfridok Pazifikotik ihes egin behar izan zuen bere familiarekin eta komunitateko beste pertsona askorekin batera, "FARC-EP indar armatuen ekonomiaren korridore estrategikoaren erdian egoteagatik eta horiei kontra egiteagatik"⁸¹. Habanako Negoziazio Mahaian esan zuen moduan, gizarte-erakundea gabetzeko, deserrotzeko eta ahultzeko modua dira lekualdaketak. Beste buruzagi afrokolonbiar baten arabera,

guretzat, komunitate beltzentzat, indarkeria ez zen duela 60 urte hasi, bertsio ofizialak dioen moduan. Guretzat, Afrikatik esklabo gisa ekarri gintuztenean hasi zen indarkeria, eta ez du etenik izan; ez da inoiz amaitu"

(Francia Márquez, Habanako Mahaiko testigantza)⁸².

Habanako Akordioari jarraikiz, Gobernuak nahitaez bermatu behar du legez kontrako hazkuntzek eragindako lurraldeen segurtasuna, batik bat Legez Kontrako Hazkuntzak Ordezteko Programa Nazionala (PNIS) garatzen ari den lekuetan. Programa horrek 50 udalerritako 190.000 familia baino gehiago hartzen ditu barne⁸³, eta 36.000 hektarea ordezkatzeara lortu du, 2017rako aurreikusitako 50.000tik⁸⁴.

Dena den, segurtasunik eza are agotu egin da eremu horietan⁸⁵. Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoak (NBGEGKB) lau sarraski erregistratu zituen FARC-EP taldearen betiko eragin-eremuetan legez kontrako ekonomiak kontrolatzeko borroken testuinguruan, Cordoban eta Nariñon⁸⁶.

Gainera, gune horietan gertatu diren giza eskubideen defendatzaileen hilketa batzuk "saihestu egin zitezkeen Estatuak Akordioaren ezarpenari modu egokian eta koordinatuan erantzun izan balio, biztanleen eskubideei lehentasuna eman ez. Estatuak gune horietan izan duen presentzia eskasa dela-eta, komunitateek ez dute legezko eskema ekonomikoetara atxikitzeko ia eskubiderik eta aukerarik"⁸⁷.

Goi Komisarioak berak adierazi duenez, talde ilegalek hazkuntza horiek ordezkatzearen alde lan egiten duten pertsonak mehatxatu, bahitu

79 FORO Fundazioa: *Meatzaritza Choco departamenduan*, 19. Minería sin control-Un enfoque desde la vulneración de los Derechos Humanos, Kolonbiako Herriaren Defentsa Erakundea, Bogota 2015, 60.

80 Memoria Historikoaren Zentro Nazionala. *Una nación desplazada: informe nacional del desplazamiento forzado en Colombia*, Bogota, CNMH - UARIV, 2015, 36.

81 Kontziliazio Nazionalerako Batzordea: *El Corazón de las víctimas*, Aip. Lib., 63.

82 Kontziliazio Nazionalerako Batzordea: *El Corazón de las víctimas*, Aip. Lib., 60.

83 2018ko martxoan, 68.228 familia zeuden programara atxikita, eta

beste 123.225 akordio kolektiboen bitartez. 50 udalerrietatik 16k familia guztiak zituzten atxikita (2 Cauca Haranean: El Dovio eta Dagua). Ikus Segundo Informe de Verificación de la implementación... Aip. Lib., 110.

84 2017an, 53.000 koka-hektarea deuseztatu zituzten halabeharrez, gobernuak aurreikusitako 50.000 hektareen xedea gaindituz.

85 Habanako Azken Akordioaren Nazioarteko Egiaztatze Batzordearen Idazkaritza Teknikoa, *Segundo Informe de Verificación...* 115 eta hurrengoak.

86 Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoa (NBGEGKB), *Informe Anual...* Aip. Lib., 4.

87 Idem



Arroz-soro txikia Tanguiko mugan.

eta hiltzen dituzte, hala nola gobernuko funtzionarioak, nazioarteko erakundeetako langileak eta tokiko nahiz komunitateetako aktibistak⁸⁸ eta Auzoko Ekintza Batzordeetako kideak. Bestalde, Defentsa Ministerio Nazionalak legez kontrako hazkuntzak deuseztatzeko eragiketiek —hazkuntza horiek borondatez ordezkatzeko akordioak sinatu diren edo horretan lan egiten ari diren guneetan— protesta eta istilu ugari sortu dituzte⁸⁹.

Krimen antolatuko taldeak koka-negozioarekin jarraitu ahal izateko eremu berriak finkatzen eta areagotzen saiatzen dira, eta nekazariei mehatxu egiten diete, Bake Akordioaren fruitu den ordezkatzeko programan sar ez daitezzen. Egoerak kezagarria dirudi, 2017tik 2018ko ekainera⁹⁰, hazkuntza horiek eskuz eta borondatez erauzteko hel-

buruarekin lan egiten duen Koka, Mitxoleta eta Marihuana Kultibadoreen Koordinakunde Nazionalako (COCCAM) 36 lider erail eta beste askok mehatxuak salatu baitituzte. Kolonbiako Pazifikoko eskualdeak dira guztietan kaltetuenak. COCCAM koordinakundeak babes kolektiborako dekretua —2018ko apirilean sartu zen indarrean— martxan jar dadila eskatzen du, alkateek, gobernatzaileek eta Poliziak⁹¹ komunitateak babes ditzaten.

3) Euren lurrak defendatzen dituztenean, lur-gabetzeak eta lekualdaketak gerrarako arma gisa erabiltzen dituzten aktore armatuen kontra.

Guztira, gerraren eraginez 7.422.645 pertsona kanporatu dituzte euren lurretatik, eta indarrez kendu edo utzi behar izan dituzte 8,3 milioi hektarea gutxienez⁹². Familia eta komunitate osoek ihes egin behar izan dute euren lurretatik, aktore armatuen indarkeria dela eta.

Indarrezko lekualdaketei buruzko *Una nación desplazada*⁹³ azterlanean, Kolonbiako Memoria Historikorako Zentroak balioetsi zuen, 2014an, biztanle afro guztien %15 eta herri indigenen %10 inguru indarrezko lekualdaketen biktima izan zirela. Azterketa beraren arabera, kanporatze-zifra altuek argi eta garbi islatzen dute komunitate horiek modu neurrigabea eta larrian kaltetuak izan direla⁹⁴.

Buenaventura hirian —Cauca Haranean—, biztanleria osoaren %88 jatorri afrikarreko pertsonak dira eta %3 indigenak; udalerrriaren lantza-eremuan (6.000 km² inguru), berriz, %95 afroak dira eta %3 indigenak. Udalerritik 198.119 pertsona kanporatu dituzte⁹⁵, Biktimen Erregistro Bakarraren⁹⁶ arabera. Habanako Elkarriketa Mahaira biktimen ordezkari gisa joan ziren bi liderrek lekualdatu egin behar izan zuten Calima Blokeko Kolonbiako Autodefentsa Batuen paramilitarrek gauzatutako indarkeriaren eraginez.

88 Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoa (NBGEGB), *Informe Anual...* Aip. Lib., 8.

89 *Idem*

90 El Espectador, 2018ko uztailaren 1a, Siguen asesinado líderes de sustitución de cultivos ilícitos. <https://colombia2020.elespectador.com/pais/siguen-asesinando-lideres-de-sustitucion-de-cultivos-ilicitos> (2018ko uztaila). Hil dituzten COCCAM koordinakundeko liderrak: Cauca (12), Nariño (11), Antioquia (6), Córdoba (4), Meta (1) eta Bolívar (1).

91 Polizian eliteko taldea sortu da krimen antolatua suntsitzeko; ekainean, banda kriminalen kontrako plan pilotuak jarri ziren martxan Buenaventuran eta Tumacon.

92 Memoria Historikoaren Zentro Nazionala. *Una nación desplazada: informe nacional del desplazamiento forzado en Colombia*. 2014tik aurrera, milaka pertsona kanporatu dituzte euren lurretatik eta, beraz, indarrez kendu edo utzi behar izan dituzten lur-hektareen kantitatea handiagoa izango da.

93 Memoria Historikoaren Zentro Nazionala. *Una nación desplazada: informe nacional del desplazamiento forzado en Colombia*, Bogotá, CNMH - UARIV, 2015.

94 Memoria Historikoaren Zentro Nazionala. *Una nación desplazada...* Aip. Lib., 38.

95 Biktimen Erregistro Bakarrari jarraikiz, 2005etik 2014ra honako udalerrri hauetatik ihes egin behar izan dute, batez ere, «Andén Pacífico» deituriko eskualdera aldera: Buenaventura (174.469 lagun), Tumaco (103.688 lagun), El Charco (30.405 lagun), Barbacoas (20.801 lagun), Timbiquí (14.117 lagun), Guapi (12.878 lagun) eta Olaya Herrera (12.685 lagun). Ikus CNMH: *Una nación desplazada*, Aip. Lib., 210.

96 Biktimen Unitateko datuak kontsultatzeko: <http://cifras.unidadvictimas.gov.co/>



Metaketa Wounaan Poborren.

María Victoria Liuk, Mariposas de Alas Nuevas Construyendo Futuro emakume-elkarteko liderrak, Buenaventurara joan behar izan zuen, 1997tik 2001era, Valle eta Cauca Harana departamentuetan jardun zuten indar armatuek bere senarra hil zutenean, HHren agindupean (José Everth Veloza García). Nasa komunitate indigenako buruzagi Lisinia Collazosek Habanako eztabaidetan azaldu zuenez, bere senarra

Naya ibaiko sarraskian hil zuten, 2001ean Calima Blokeak berak ibaira bota zituen ehun pertsona indigena eta afrokolonbiar ingururekin batera (Fiskaltzak 40 hildako erregistratu zituen). Ibai hori oso gutiziatua da narkotrafikoaren aldetik, barrualdean landatzen den droga ateratzeko.

Justizia eta Bake Legearen prozesuan, HHk paramilitarismoaren 3.000 krimen gauzatu izana aitortu zuen. María Victoria Liu liderrak gogorazi duenez, Buenaventurako enpresari handiek⁹⁷ ordaindu egiten ziotela aitortu zuen HHk; izan ere, horiek "garbiketa egitera etortzen ziren, ikatzaren korridorean biziginen guztiok gerrillariak ginelako eta, beraiek paramilitarrak zirenez, gerrillariak hiltzera etortzen zirelako... enpresariak nor ziren esatera zihoan Estatu Batuetara bidali zutenean"⁹⁸.

Naya ibaiko Nasa komunitate indigenak bezala, beste asko ere euren antzinako lurraldeetatik kanporatu dituzte. 1985etik 2017ko abendura 220.459 indigena kanporatu zituzten, 2005. urtean batez ere. 2017an, Bake Akordioa sinatu ondoren, ia 4.000 indigena kanporatu zituzten euren lurretatik⁹⁹: 2017an 3.799 indigena izan ziren eta 827 konfinatu zituzten. Wounaan (Choco eta Cauca Harana - Buenaventura), Embera

Chamí (Risaralda) eta Eperara Sipidara (Cauca) dira guztien artean kaltetuenak¹⁰⁰.

Horrenbestez, Bake Akordioa sinatu izanak ez du lekualdaketen drama geldiarazi. 2017an, ACNUR erakundeak 7.500 pertsonari eragin zieten 42 lekualdaketa jakinarazi zituen, aurreko urteko erdiak baino zertxobait gehiago¹⁰¹. Bestalde, Gai Humanitarioen Koordinaziorako Nazio Batuen Bulegoak (OCHA) lekualdaketa masiboen berri eman du, 2017ko abuztutik, zenbait eskualdetan, eta horietan ere indigenak izan dira biktima nagusiak¹⁰².

Habanako Akordioan, Landa Erreforma Integrala jorratzen da 1. Puntu. Bertan, lurraren birbanaketa eta gun txiroenen garapena ezartzen da herrialde bidezkoagoa eratzeko funtsezko alderdi gisa. 2018ko maiatzera arte oso eskasa izan da Puntu horren ezarpena. Lurrei buruzko Legea, adibidez, ez da Kongresuan aurkeztu, eta haren bertsiok polemika handiak sortu dituzte; gainera, beste arau batzuek ere oso etorkizun zalantzarria dute, Lugorrien Legeak edo Nekazaritza Jurisdikzioak, esaterako.

Santos Presidentetzak komunitate indigenentzako eta beltzentzako lege-dekretu garrantzitsuak eman zituen, sekulako atzerapenak bizi baitituzte¹⁰³. Horien artean, Lurren

97 HH (José Everth Veloza García) Bloque Bananero fronte paramilitarreko komandantea izan zen, 1994tik 1997ra, Uraban, eta Urabako banana-enpresen laguntzarekin gauzatu zituen bere hilketak (Corazón de las Víctimas, 65). Justiziaren eta Bakearen 975 Legearen esparruan desmobilizatutako 66 pertsonen artean, HHk Carlos Castañoren aginduak jaso zituela aitortu zuten askok gerrillarekin duen ustezko lankidetzarekin biztanleak beldurtzeko helburuarekin, baita Vicente Castañoren aldetik ere, Bloque Pacífico sortu eta eskualdean droga-ekoizpenaren gaineko kontrola izateko helburuarekin.

98 Kontziliazio Nazionalerako Batzordea: *El Corazón de las víctimas*, Aip. Lib., 65.

99 ONIC erakundearen arabera, 2017an herri indigenetako 4.595 kide kanporatu zituzten euren lurretatik. Ikus ONIC: *Balance General de Vulneraciones a los DDHH e infracciones al DIH contra Los Pueblos Indígenas*, Kolonbia 2017-2018, Herri Indigenen Giza Eskubideetarako Batzordea (CDHPI), Kolonbia, 2018, 16.

100 ONIC: *Balance General de las Vulneraciones...* Aip. Lib., 21.

101 Oharra: ACNUR erakundeak jakinarazi zuenez, 2016an 47 larrialdi gertatu ziren indarrezko lekualdaketa masiboen, konfinamenduen eta mugikortasun-murrizketen eraginez. Sarbide zaila duten eremuetan gertatu ziren Antioquia, Arauca, Cauca, Choco, Cordoba, Nariño, Norte de Santander eta Cauca Harana eta wounaan, embera eta embera dovid herri indigenei, eta komunitate afrokolonbiarrei eta nekazariei eragin zieten batik bat. Lekualdaketa masiboei 13.864 pertsona kaltetu zituzten guztira (ACNUR: 2017. 16).

102 OCHA: *2017an izan diren komunitate indigenen lekualdaketak Choco, Nariño eta Cordoba departamenduetan*. Zentzu horretan, ikus: ONIC, *Balance General de Vulneraciones a los DDHH...* Aip. Lib., 22.

103 2018ko maiatzean ez zitzairen lursail bakar bat ere esleitu eta Lurralde Ikuspegia duten Garapen Programak (PDET) ezartzeko lehen fasea amaitzeko zegoen oraindik udalerrri guztietan. Ikus *Segundo Informe de Verificación de la implementación del Acuerdo Final de Paz en Colombia para los Verificadores Internacionales Felipe González y José Mújica*, Nazioarteko Egiaztatze Batzordearen Idazkaritza Nagusia (CINEP/PPP-CERAC), 2018ko uztaila, 5.

Bizitza, lurraldea, bakea eta Akordioak bete daitezela defendatzeko Mugimendu Indigena Nazionalaren (2017) hitzek Juan Manuel Santos presidenteak 2011n emandako neurrien aplikaziorik eza islatu zuten¹⁰⁵, baina, horrez gain, Gobernuak “herri indigenen inguruko akordioak ustez nola betetzen dituen” salatzen dute, “lurralde indigenetan giza eskubideen urraketek bere horretan jarraitzen dutela eta larriagotu egiten direla, eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa behin eta berriz urratzen ari dela ikusita”:

**(...) Orduko indigena bat kanporatzen zuten euren lurretatik; egunero 4 indigena konfinatzen zituzten; hile-
ro 39 lider eta agintari indigena mehatxatzen zituzten;
eta berrikusitako 26 hilabeteetan (2015eko urtarrile-
tik 2017ko otsailera) 84 indigena erail zituzten. Horre-
la, bada, 2017an 1.307 aldiz urratu zituzten giza es-
kubideak, baita Herri Indigenen kontrako Nazioarteko
Zuzenbide Humanitarioa bera ere, lurralde nazional
osoan (CDDHHPI)¹⁰⁶.”**

Fondoari eta Lurralde Ikuspegia duten Garapen Programei (PDET) buruzko dekretuak ditugu; azken hori 305 kontseilu komunitariotan, 452 babesleku indigenatan, 11.000 bidexkatan eta Nekazaritza Erreserbako 6 eremutan ezartzea aurreikusten da. Gai garrantzitsu horiek zailtasun handiz hitzartzen ari dira herri indigenekin¹⁰⁴.

Wounaan herri indigenak —Choco departamenduan bizi dira batik bat (Wounaan indigenen %84)— jasan ditu 2016ko eta 2017ko lekualdake-
ta masibo gehienak¹⁰⁷. Bestalde, Amnesty International erakundeak ere Wounaan herri indigenaren konfinamendua ohartarazi zuen El Choco, San José eta San Juan ibai-
ko Taparalito departamenduetan,

Kolonbiako Itsas Infanteriaren eta talde armatu ilegal baten arteko ga-
tazka armatuaren ondorioz¹⁰⁸.

Konfinamendua beste gai kezka-
garri bat da: 827 indigena daude konfinatuta Antioquia, Cauca Ha-
rana eta, batez ere, Choco departa-
tamenduetan (Embera, Chami, Em-
bera Katio eta Wounaan herriak)¹⁰⁹. Azken departamentu horretakoak dira, hain zuzen ere, konfinatutako biztanle guztien %90 (661), baina, horrez gain, bertan jasan dituzte lekualdaketa guztien erdiak baino gehiago, baita Caucan ere, Nasay Kokonuco herriaren kasuan¹¹⁰.

Gertakari horiek agerian jartzen dute bake-prozesuaren erronka garrantzitu-
suenetakoa zein den: gatazka arma-
tua gehien jasan duten eremuetako batzuetan bizi diren komunitate indi-
genak eta afrokolonbiarrak babestea, jazoera horiek inpunitatean geratzen ez direla bermatzea, eta erabateko erreparazioa lortzeko eta horiek ez errepikatzeke neurriak hartzea.

Gorte Konstituzionalaren arabera, Kolonbiako Estatuak ez du lortu ko-
munitate indigenetako agintariak, liderrek eta kide entzutetsuek aurre egin behar dioten etengabeko espazio- eta mehatxu-egoera arintzea, eta horrek bereziki eragin die par-
taidetza-prozesuei eta alde zuzeneko kontsulta-prozesuei¹¹¹.

104 Oharra: 902 Lege Dekretuan aurreikusten den Erakunde Indigenekiko Hitzarmen Mahai Iraunkorraren hitzarmenari esker, Lurren Fondoan kontu bat eta hainbat babesleku ezartzea lortu zuen, baina ez da gauza bera gertatu komunitate beltzen, afrokolonbiarren, palenkeroen eta arraizalen kasuan Goi Instantzia Etnikoak (AIE) akordioa lortu zuen (2018ko martxoa) herri indigenek PDET programen eraketan parte har zezaten. Ikus *Segundo Informe de Verificación de la implementación del Acuerdo Final de Paz en Colombia para los Verificadores Internacionales Felipe González y José Mújica*, Nazioarteko Egiatatzeko Batzordearen Idazkaritza Nagusia (CINEP/PPP-CERAC): Bogotá, 2018ko uztaila, 6 eta hurrengoak.

105 Errepublikako Presidentetzaren 2011ko 4633 Lege Dekretua; haren bidez, herri eta komunitate indigenetako biktimei dagozkien lurralde-eskubideen laguntza, arreta, erreparazio eta itzulpen-
rako zenbait neurri ematen dira.

106 ONIC, *Balance General de Vulneraciones a los DDHH...* Aip. Lib., 10.

107 2005ean, Estatistika Departamendu Nazionalaren Erroldak

(DANE) Wounaan herriari dagozkion 9.066 pertsona erregistratu zituen, horietatik %50,3 gizonak (4.503 lagun) eta %49,7 emakumeak (4.503 lagun). Wounaan herria Choco departamenduan kokatzen da batik bat, bertan bizi baita biztanleria osoaren %84,1. Cauca Haranak %15,3 (1.390 lagun) eta Bogotá %0,3 (27 lagun) jarraitzen diote. Bi departamendu horietan eta hiriburuan bizi dira herri horretako biztanleria osoaren %99,8. Wounaan herriak Kolonbiako biztanleria indigena osoaren %0,7 osatzen du.

108 Amnesty International erakundearen Ekintza Larria: AU 178/17 AMR 23/6774/2017

109 Idem, 20.

110 ONIC erakundearen arabera, 2017an, 827 pertsona zeuden konfinatuta Chocon.

111 Gorte Konstituzionalaren 2009ko 004 jarraipen-autoa.



Tanguiko umeak.

IV. Bake Akordioari eta Justizia Trantsizionalari egindako ekarpen etnikoak

Habanako Akordioaren sinadura erronkaz eta itxaropenez beteriko une historikoa izan da. FARC-EP taldeak egiturazko aldaketak lortzeko erabakitasuna agertu zuen Habanan, eta horrek “sarrerako” ontzitik kanpo utzi zituen lehen bi urteetako eztabaida-gai gehienak, herrialde baztertzailer, bidegabe, aldakor, ustel eta zigorgabetasun handienetako batean, lehen koka-eta kokaina-ekoizlea, eta naturaren suntsitzaileenetako bat.

Negoiazioen erdiespen garrantzitsuenetakoa gatazka armatua izan dela aitortze hutsa izan zen, eta ez terrorismoaren kontrako estatua-aren gerra. Honako hau esan zuen Egiaren Batzordeko presidentek: “Nekazari, unibertsitateko ikasle eta intelektualek argi eta garbi ondorioztatu zuten, Kolonbiak bizi zituen egiturazko injustizia-baldintzetan, injustizia horiek konpontzeko bide politikorik ez zegoela, martxan jarritako saiakera politikoak (Unión Patriótica alderdia, adibidez) ezarpenaren bidez suntsitu zirela eta, baldintza horietan, matxinatzeko eskubidea ahalbidetu zela. Horregatik guztiagatik, aurrez aurreko elkarriketa egin zuten, eta bi alderdiek egin zituzten kontzesioak”¹¹².

Negoiazioen inflexio-puntua biktimak Habanan izan zirenean gertatu zen. Estatuko biktimen %33, gerrillako biktimen %33 eta paramilitarren biktimen %33 joan ziren.

Horiek zuzenean entzuteak jarrerak gerturatzeko lagundu zuen.

Gerra mende-erdia baino gehiago luzatu zen eta 8 milioi biktima eragin zituen, horietatik ia bi milioi haurrak; 200 sarraski inguru dokumentatu dira, 25.000 bahiketa, 4.000 faltsu positibo, 80.000 pertsona desagertutak eman dira eta 7 milioi pertsonak baino gehiagok ihes egin behar izan dute euren lurretatik, nekazari, indigenek eta afrokolonbiarrek batik bat¹¹³. Indarkeria ahaztezin horren ondoren, azken urteetan homizidio gutxien jaso dituen urtea izan da 2017¹¹⁴.

2016ko abuztuaren 29an, borroken behin betiko etena jarri zen indarrean. Bost egun lehenago, abuztuaren 24an, Batzorde Etnikoa sortu zen Habanan. Bertan parte hartu zuten Kolonbiako Erakunde Nazional Indigenak (ONIC), Kolonbiako Agintari Tradizional Indigenak, Gobernu Nagusiak eta Afrokolonbiarren Bake Kontseilu Nazionalak (CONPA). Batzordeak jasota geratu ez ziren Akordioak puntuen eta gaien inguruko zenbait galdera egin zituen, eta Kolonbiako herri etnikoen zenbait printzipio, zaintza eta berme txertatzea lortu zuen, Akordioa behar bezala ezarri ahal izateko. Horiek Azken Akordioaren 6.1.12. kapitulu etnikoan txertatu ziren, etniaren, generoaren, emakumearen, familiaren eta belaunaldien ikuspegia barne hartzen duen kapituluaren, alegia. Kapitulu etniko horrek horien identitate eta integritate sozialerako,

ekonomikorako eta kulturalerako eskubidea aitortzen du, baita euren lurrikiko, lurraldeekiko eta baliabideekiko eskubidea —horien antzinako jardunbideak aitortzea esan nahi du horrek—, euren lurraldetasuna lehengoratzeko eta sendotzeko eskubidea, eta hartutako lurren eta lurraldeen babes eta segurtasun juridikorako indarrean diren mekanismoak ere, aspaldidanik edo tradizioz izan dituztenak. Berezi garrantzitsutzat jotzen da ikuspegi etnikoa Lehen Akordioaren xede den Landa Erreforma Integralean txertatzea.

Dena den, herri etnikoei ez zitzaizkien Akordioaren konpromisoak kontsultatu, Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) 169. Hitzarmenak jasotzen duen moduan. Zentzu horretan, iritzi desberdinak daude eta, batzuen ustez, alde aurretiko kontsulta gisa har daiteke Batzorde Etnikoak elkarriketen azken egunetan parte hartu izana¹¹⁵.

Sinadura historikoaren ondoren, Álvaro Uribe Vélez nagusitutako erreferendumaren kontrako kanpaina abiarazi zen. Kanpaina horrek arrakasta izan zuen 2016ko urriaren 2an, eta 190 aldaketa txertatu ziren Akordioan. Kongresuak azken Akordioa legezkotzeko boterea zuela ezarri zuen Gorte Konstituzionalak, baita hura ezartzeko legeak eztabaidatzeko metodoa fast track izan zedila ere. Azaroaren 24an, azken akordioa sinatu zen eta guztiz loteslea izan zen Kolonbiako hurrengo hiru agintaldietan.

112 Elkarriketa pertsonala, Bogota, 2018ko uztaila. Hitzez-hitzeko aipua.

113 Francisco de Roux Egiaren Batzordeko presidente jaunari 2018ko uztailan egindako elkarriketan emandako datuak.

114 2017an, homizidioen tasa (24 homizidio 100.000 biztanle bakoitzeko) azken 42 urteetatik baxuena izan zen; zauriak eta/edo anpu-tazioak jasan dituzten borrokalarien kopurua %98 baino gehiago

murritzitu da. *Informe especial de Derechos Humanos Situación de líderes y líderes...* Aip. Lib., 3.

115 Patricia Tobón mandatari indigenaren ustez, parte hartzeko kontsulta behar-beharrezkoa izan da, Akordio Etnikoan bitartez (2018ko uztailan egindako elkarriketa pertsonala). *Amnesty International erakundearen 2018ko Urteko Txostenak* zalantzak agertu ditu zentzu horretan.



El Convento, Atratotik ikusita. Eskuinean, Quibdoko katedrala.

Negoiazio horietatik, biktimen eskubideak aitor zitezela lortzeko ezinbesteko erakundeak sortu ziren. Erakundeen multzo horrek egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko sistema integrala deiturikoa osatzen dute. Sistema hori Bake Akordioaren 5. puntua oinarritzat hartuta sortu zen eta honako hauek hartzen ditu barne: (i) Egia argitzeko, Bizikidetzarako eta Ez Errepikatzeko Batzordea; (ii) Desagertutako Pertsonak Bilatzeko Unitatea; (iii) Bakerako Jurisdikzio Berezia; (iv) bakea eratzeko erreparazio osorako neurriak eta ez errepikatzeko bermeak¹¹⁶.

Horrez gain, zirkunskripzio berezia sortu zen biktimek Errepublikaren Kongresuan erantzukizuna izan zezaten, baina, azkenean, Kongresuak

atzera bota zuen. Kolonbiako Juristen Batzordeak sakon aztertu du biktimek biktimen erreparaziorako sistema integralean duten lekua¹¹⁷. Bestalde, 23 bidezidor eta 7 kanpamentu finkatu ziren desmobilitatutako FARC indar armatuentzat, eta 170 udalerri aukeratu ziren Lurralde Ikuspegia duten Garapen Programak (PDET) ezartzeko.

Bakerako Jurisdikzio Berezia (BJB) sortzea erabaki zen gerrako akto-reentzat eta horien laguntza ekonomiko eta politikoentzat, baita Egia argitzeko, Bizikidetzarako eta Ez errepikatzeko Batzordea (CEV) ere, egia berreskuratze eta erantzukizunak ezartzeko. Hori guztia nazio eta nazioarteko komunitateak berrikusita eta nazioarteko gorteen errespetuarekin, betiere prozesuak

zehatzak badira. 2004tik, Nazioarteko Zigor Auzitegiak (NZA) Kolonbian ditu jarrita begiak, eta bertara joaten da gatazka armatuan egindako nazioarteko krimenak ikertzen ari direla egiaztatze helburuarekin. "Faltsu positiboen" kasuan jasotako exekuzio estrajudizialen harira, 1.200 exekuzio baino gehiago gauzatu zituzten unitateetako 23 jenerala eta 6 koronel dira NZAren jomuga¹¹⁸.

Instantzien artean koordinazio-mekanismoak sortu dira. BJBk, adibidez, egia historikoa argitzeko kasu garrantzitsuenak bidaliko dizkio Egiaren Batzordeari (CEV). Dena den, Batzorde horrek ez du ahalmenik BJBri jasotzen dituen kasuak bidaltzeko edo zigor-erantzukizunak bereizteko. Desagertutako Pert-

116 Ikus orri ofiziala: <https://www.jep.gov.co/Paginas/JEP/Sistema-Integral-de-Verdad-Justicia-Reparacion-y-NoEl-Repeticion.aspx>

117 Kolonbiako Juristen Batzordea: *Promoviendo las garantías y exigiendo derechos: Guía para profesionales en el SIVJRN*, 2017ko azaroa, Bogota.

118 El Espectador, 2017ko abuztuaren 1a: <https://colombia2020.elespectador.com/justicia/fiscal-de-la-cpi-vendra-colombia-en-septiembre>

sonak Bilatzeko Unitateak (UBPD) ere azterketa antropologikoarekin aurkitzen dituen pertsonen kokapenari, hobie eta indarkeria-patroiei buruzko informazio esanguratsua bidaliko dio Batzordeari. Batzordea da erakunderik independenteena, eta 20.000 biktima elkarrizketatzea eta gerrak gehien zigortutako eskualdeak bisitatzea aurreikusten du. Herrialde emaileen finantziazioarekin hasi zen, baina 3 urteko agintaldirako aurrekontua Estatua-rena da. Horregatik, oso garrantzitsua da gobernu berriak haren jarraitutasunaren alde apustu egitea eta bake-prozesuan behar-beharrezkoa den erakunde horren funtzionamendua ekonomikoki ez itotzea.

Egia Argitzeko Batzordean eta Bakerako Jurisdikzio Bereziaren ordezkartza dute herri indigenek eta afrokolonbiarrek. Egiaren Batzordeko kide dira María Patricia Tobón Yagarí mandataria indigena eta María Ángela Salazar Murillo afrokolonbiarra. Egiaren Batzordeari erreferentzia egiten dioten Akordioa xedapenen %60 oraindik ezartzeko egon arren¹¹⁹, dagoeneko generoaren arloko lantaldea jarri du martxan, eta aurrera jarraitzen du ikuspegi bereizgarrien eta bizi-ibilbideko ikuspegi transbertsalizazioan; horiek irizpide orientagarri gisa deskribatzen dira, pertsonen eta komunitateen gatazkaren eraginez jasan dituzten kalteak hobeto ulertzeko¹²⁰. Indar Militarrei informazio sailkatua eskatu izana izan da unerik kritikoenetako bat, Batzordearen agintaldiak ahalbidetzen duena.

Bestalde, Batzorde Etnikoak eta Genero Batzordeak sortu dira BJBn. Martha Patricia Linares magistratua da Jurisdikzio horretako buru, 51 magistratuetatik 28 emakumeak dira, %10 indigenak dira, %19 afroak, eta magistratuen %61 Bogotatik kanpokoak dira, inoiz ez bezala Kolonbian. Honako hauek dira Jurisdikzioa osatzen duten ki-deak: emakume kankuamo bat, Ana María Ochoa Arias, Kolonbiako Erakunde Nazional Indigenako (ONIC) aholkulari juridikoa 2017ra arte; Arawak herriko emakume indigena bat, Florentina Izquierdo Torres, Estatu Kontseiluko lehen magistratu laguntzaile indigena eta emakumea; Totoró herriko gizon indigena bat, José Miller Hormiga, Caucaiko komunitateen defendatzailea; eta wayuu herriko indigena bat, Juan José Cantillo, zenbait urtetan, justizia- eta bake-prozesuetan biktimak defendatzeko lan egin duena. 2018ko ekainerako, BJBk aurrekontu nahikoa zuen herri indigenei Erregelamenduari buruzko kontsulta egiteko¹²¹.

Bakerako Jurisdikzio Bereziak hainbat aldaketa izan ditu, Errepublikako Kongresuan, Bake Akordioan zehaztutakoari dagokionez¹²². Gainera, Bake Akordioan jasotzen diren BJBri buruzko xedapenen ia erdiak ezartzeko daude oraindik¹²³. Era berean, Jurisdikzioaren autonomia eta irismena mugatu dira; gerra finantzatu zuten "hirugarrenak" eta Estatuko agente zibilak, adibidez, aske joan ahal izango dira BJBra, baina dagoeneko ezin izango dute aitortzera joateko deia jaso. Kolonbian, gerra finantzatu zuten 12.000

enpresa-gizon eta politikari inguru daudela balioesten da¹²⁴. Desagertutako Pertsonak Bilatzeko Unitateko zuzendari Luz Marina Monzónek berak bere zainetan bizitu zuen desagertze behartuen drama; zenbait eragozpen administratibo eta tekniko jasan zituen hura mar-txan jarri zenean, eta eztabaida bati baino gehiagori egin behar izan dio aurre haren izaera eta eskumenak direla eta¹²⁵.

2018ko abuztura arte, Bakerako Jurisdikzio Bereziarekiko konpromiso-ekitaldiak sinatu dira FARC-EP taldeko 4.653 kideren eta armadako eta poliziako 2018 kideren aldetik. Uztailaren 10ean, Armadako jeneral Mario Montoya BJBren lehen entzunaldi publikoan agertu zen faltsu positiboengatik, eta BJBren araudia betetzea hitzeman zuen, hau da, egiarekin, justiziarekin eta biktimen erreparazioarekin laguntzea. Egun batzuk geroago, uztailaren 13an, beste entzunaldi publiko bat egin zen FARC-EP indar armatuek gauza-tutako bahiketa-kasuekin lotuta.

Justizia Trantsizionalari dagozkion erakunde eginkizunek komunitate eta erakunde defendatzaileak babesten dituzte, baina, era berean, erronka gehigarria dira. Memoria Historikoa berreskuratzeko txostenak egitea edo aukeratzea, adibidez, horiek Egiaren Batzordeari edo Bakerako Jurisdikzio Bereziari (BJB) aurkezteko. Egia deserosoa da askorentzat, eta argitara ematea beti da arriskutsua. Batzordearekin lan egiteko asmoa agertu dute Egiaren Mahaiak, Memoriaren eta Egiaren Kolonbiako Sareak, enpresen eta In-

119 Nazioarteko Bake Ikerketen KROC institutua: *Segundo Informe sobre el estado efectivo de Implementación del acuerdo de paz en Colombia*, diciembre 2016 mayo 2018, Notre Dame Unibertsitatea, 2018ko abuztua, 190.

120 Nazioarteko Bake Ikerketen KROC institutua: *Segundo Informe sobre el estado efectivo de Implementación...*, Aip. Lib., 192.

121 Ana María Ochoa Arias magistratu indigenari egindako elkarrizketa, 2018ko uztaila.

122 Habanako Azken Akordioaren Nazioarteko Egiaztatze Batzordearen Idazkaritza Teknikoa, *Segundo Informe de Verificación...* 25.

123 Nazioarteko Bake Ikerketen KROC institutua: *Segundo Informe sobre el estado efectivo de Implementación...*, Aip. Lib., 199.

124 Francisco de Roux jaunari egindako elkarrizketa, Bogota, 2018ko uztaila.

125 CINEP Nazioarteko Egiaztatze Batzordearen Idazkaritza Teknikoa (CINEP/PPP-CERAC), *Segundo Informe de Verificación...* Aip. Lib., 25.

dar Armatuen sektore batzuek, eta Memoria Historikoaren Zentro Nazionalak¹²⁶. Zentro horrek gatazka armatuari buruzko 240.000 dokumentu baino gehiago ditu.

Dena den, asko aurreratu da biktimen erakundeek Aitorpen Salara txostenak aurkezteko protokoloari dagokionez, eta protokoloetan lan egiten ari dira Ikerketa eta Akusazio Unitatearekin (UIA)¹²⁷. Protokolo horiek BJBrekin lan egitea ahalbidetzen diete biktimei eta erakundeei.

2018ko abuztuan, BJBk Justizia Gorte Gorenaren lehen kasuak jaso zituen, baita Nazioko Fiskaltza Nagusiak bidalitako informazioa ere. Memoria Historikoaren Zentro Nazionalak balio handiko informazio garrantzitsua du, eta gizarte zibilak ere hainbat kasu hautatu eta bidali dizkio BJBri¹²⁸.

Herri Indigenen Nazioarteko Egunaren esparruan, 2018ko abuztuan, Kolonbiako Erakunde Nazional Indigenak (ONIC) txostena aurkeztu dio BJBri, NBGEGKBk lagunduta. Txostenak gatazka armatuaren esparruan gertatutako sarraski, homizidio, behartutako desagertpen, lekualdaketa, sexu-indarkeria, mehatxu eta beste krimen batzuekin lotutako 231.144 jasotzen ditu. Goi Mandatariak azpimarratu zuenez, "herri indigenak modu berezian babestu beharreko subjektuak dira, eta egia, justizia eta erreparazioarako eskubidea dute, baita euren kontra gauzatu diren krimenak errepikatuko ez direla bermatzeko eskubidea ere"¹²⁹.

Gainera, Desagertutako Pertsonak Bilatzeko Batzordea martxan jart-



Meatzaritzaren merkurioak Atratoko arroko arrainak kutsatu ditu.

zen denean (2018ko uztaillean oraindik ez zuen langileak kontratatzeiko aurrekonturik), erakunde eta komunitate askok ere euren pertsona maiteen egonlekuari buruzko informazioa eskaini ahal izango dute. Esaterako, hobi komunak kokatzen lagundu ahal izango dute, gorpuk handik atera ahal izateko. Edonola

ere, gertakarien egia estalgabetzea arriskutsua izan daiteke, zaurgarritasun handiko testuinguru orokor batean. Jarduera horiek sekulako erronka bihurtzen dira bizitza eta integritatea bera arriskuan jartzen direnean; baina, batez ere, gerrako indarkeria berriz gerta ez dadila bilatzen dute, modu nekaezinean.

126 Nazioarteko Bake Ikerketen KROC institutua: *Segundo Informe sobre el estado efectivo de Implementación...*, Aip. Lib., 191.

127 CINEP Nazioarteko Egiaztatze Batzordearen Idazkaritza Teknikoa (CINEP/PPP-CERAC), *Segundo Informe de Verificación...* Aip. Lib., 25.

128 Nazio Batuen Egiaztatze Misioa Kolonbian, *Idazkari Nagusiak Na-*

zio Batuen Segurtasun Kontseiluari egindako hirugarren txostena, Aip. Lib., 3.

129 *El País.com.co* albistea, 2018ko abuztuaren 9koa: ONU acompanya entrega del primer informe de la Onic ante la Justicia Especial para la Paz. Hemen: <https://www.elpais.com.co/colombia/onu-acompana-entrega-del-primer-informe-de-la-onic-ante-la-justicia-especial-de-paz.html>

VI. Memoria Historikoa eta erreparazio sinbolikoa

Urteetan, komunitate eta erakunde batzuk —Justiziaren eta Bakearen aldeko Elizarteko Batzordea, PACIPAZ eta CONPAZ sarea, adibidez— Memoria Historikoa berreskuratzeko lan egiten aritu dira, erreparaziorako erreminta gisa. Justiziaren eta Bakearen aldeko 2005eko Legeak honela ulertzen du biktimen erreparazio sinbolikoa: memoria historikoa zaintzea, biktimak eragiten dituzten jazoerak ez errepikatzea, gertakarien onespun publikoa, barkamen publikoa eta biktimen duintasuna berreskuratzea bermatuko duten egintzak (8. art.).

2011ko uztailean, garai hartako presidenten Juan Manuel Santos jaunak El Salador iritsi zen, eta honako hau esan zuen: “Barkamena eskatzen dizuet Estatuaren eta gizartearen izenean, inoiz gertatu behar ez zuen sarraski horregatik”¹³⁰. Paramilitarrek gutxienez 66 pertsona hil zituzten, 2000. urteko otsailean, 3 eguneh luzatu zen sarraski batean, Armadaren base militarretatik 15 minutura. Horregatik, honako hau esan zuen Juan Manuel Santosek: “Hor huts egin zuen Estatuak, mota guztietako akatsak egin zituen, horrenbeste denboran bezala”.

2012ko urtarrilean, presidente ohiak El Tigrera iritsi zen, Putumayon, eta publikoki eskatu zien barkamena sarraskiko biktimei. “1999. urtean, paramilitarrek Putumayon sekulako odol-karabana hasi zutela” gogorazi zuen. Presidente ohiak azaldu zuenez, “erreparazioa sinbolikoa da batik bat, gizarteak biktimekin egin behar duen erakustaldia. Onartu



Pertsona zintzoak hiltzen ari dira, pertsona maitatuak, pertsona zuzenak, lurren lapurretak eta lukuz aldatzeko presioak berehala jakinarazten zituzten pertsonak... eragile armatuak asko gogaitzen dituen jendea, kikiltzen ez den eta burua jaisten ez duen jendea, indarkeria aktiborik ezaren benetako borrokalariak”

(Francisco de Roux, Egiaren Batzordeak lider)

egiten ditugula esan behar diegu, biktima gisa onartuta senti daitezela; hori da garrantzitsua, pixkanaka, gorrotoa desagertzen joan dadin”¹³¹.

Bi hilabete lehenago, garai hartako Barne-arazoetarako ministroak ere barkamena eskatu zion Iván Cepedari, MOVICEko kide eta Ganberako ordezkariari, Polo Demokratiko Alternatiboaren izenean: “Egiaz, sekulako justizia-egintza iru-

ditu zitzaidan Barne-arazoetarako ministroak, Germán Vargas Lleras jaunak, Kolonbiako Estatuaren izenean barkamena modu argian eta gardenean eskatu izana”. Bere aita, Manuel Cepeda Vargas, senataria eta Unión Patriótica alderdiko buruzagi nagusietako bat, hil egin zuten paramilitarrek. Cepedak adierazi zuenez, “Estatuaren erantzukizuna aitortzen duen egintza da, presidentea buru dela” eta, horretarako, “duin egin behar dira gertakari gait-

130 2011ko azaroaren 7ko *Semana aldizkaria*: A nombre del Estado Presidente Santos pidió perdón a nombre del Estado por la masacre de El Salado. Ikus: <https://www.semana.com/nacion/articulo/nombre-del-estado-presidente-santos-pidio-perdon-masacre-el-salado/242647-3>

131 *El País* egunkaria, 2012ko urtarrilaren 25a: El Presidente de Colombia pide perdón a las víctimas de una matanza paramilitar. https://elpais.com/internacional/2012/01/25/actualidad/1327450839_651789.html

zesgarri horietan bizitza galdu zuten pertsonak”.

FARC-EP indar armatuek ere eskatu dute barkamena. 2015eko abenduaren 6an, ekitaldia egin zen Bojayá udalerrian (Choco departamenduan) eta, bertan, FARC-EP taldeak bere erantzukizuna aitortu eta barkamena eskatu zien Bojayáko biktimei, 2002. urtean, 79 pertsona hil eta 100 baino gehiago zauritu zituztelako. Biktimen 700 ordezkari inguru —kontseilu komunitario afrokolonbiarretako eta Bojayáko kabildo indigenetako ordezkariak— joan ziren biktimei omenaldia egin eta horien memoriari ohore egiteko ekitaldi ospetsura. Indar paramilitarrek ere erantzukizuna bazutela adierazi zuten komunitateek, horiek giza ezkutu gisa erabili zituztelako, baita Kolonbiako Estatuak berak ere, arriskuaren aurrean laguntza eskatu zutenean, babesik ez eskaintzeagatik —“alerta goiztiarren” bitartez— eta indar publikoak paramilitarrek ez ikusiarena egiteagatik¹³².

Gerrillaren izenean, Rodrigo Londoñok barkamena eskatu zuen Akordioak egin ziren egunean: “FARC-EP indar armatuen izenean, barkamena eskatu nahi dut, bene-benetan, gatazkak eragindako biktima guztiengatik, gerra honetan sortu dugun min guztiagatik”. Gero, hainbat ekitaldi zehatz gauzatu dira komunitateetan. FARC-EPk bere erantzukizuna onartu eta barkamena eskatu du Cauca Haraneko 11 diputatuak —gerrillak hartuta zeuden, haren ardurapean— eta bere lana betetzen ari zen polizia bat hiltzeagatik. Estatuak ere eskatu die barkamena, Armadarekin batera, komunitate indigenei. 2018ko apirilaren 5ean,



Ahaztu gabe

Aníbal Fernández de Soto Defentsarako ministro-ordea eta Jorge Hernando Herrera jenerala, Armadaren Cauca hogoita bederatzigarren brigadako komandantea, Monterillako babesleku indigenara (Caldono udalerrian, Cauca departamenduaren erdialdean) joan ziren 2008ko abenduaren 16an gauzatutako gertakariengatik barkamena eskatzera. Egun horretan bertan, Armada Nazionaleko kideek Edwin Legarda hil zuten, nasa herri indigenako Aida Quilcue liderraren senarra¹³³. Liderak Estatuaren barkamena onartu eta honako hau esan zuen: “Gaur publikoki berretsi da Kolonbiako Armadak erantzukizuna izan zuela Edwinen krimenean”. Gero, bere senarraren kasua hartzeko eskatu zion Francisco de Roux aitari, Egi argitzeko Batzordeko presidenteari, hura hiltzeko egin zuten homizidioaren egile intelektualak nor izan ziren ez jakiteak sortzen duen sufri-menduari amaitzeko.

Une honetan, bakearen aldeko aldean eman beharreko aurrerapausoak geldirik daude. Iván Duqueren Gobernuak “Bake Prozesuari Ez” ban-

derarekin iritsi zen boterera, “Akordioak txikitu” gisako esaldiekin. Bake Akordioa ezartzeko eta defendatzailerak babesteko funtsezko zorroak dituzten ministroak Uribe presidente ohiaren aldekoak dira. Uribe prozesuaren kontra agertu da behin baino gehiagotan, eta Zentro Demokratikoa fundatu zuen, gaur egun gobernuan dagoen alderdia. Gobernuak Akordioak betetzeko funtsik ez duela aitortu du gobernuak, eta ez du bere talde negoziatzailea izendatu ELNrekin hitz egiteko.

Azkenik, eta haren presidente Francisco de Roux jaunaren hitzetan, Egiaren Batzordeak lider eta pertsona defendatzaileen hilketen dramari aurre egin beharko dio, bere ustez, hori baita gerraren errepikapenaren froga¹³⁴. “Pertsona zintzoak hiltzen ari dira, pertsona maitatuak, pertsona zuzenak, lurren lapurretak eta lukuz aldatzeko presioak berehala jakinarazten zituzten pertsonak... eragile armatuak asko gogaitzen dituen jendea, kikiltzen ez den eta burua jaisten ez duen jendea, indarkeria aktiborik ezaren benetako borrokalariak”¹³⁵.

132 <http://www.centrodehistoriahistorica.gov.co/descargas/farc-perdon-bojaya/farc-pide-perdon-por-masacre-de-bojaya.pdf>
Ikus lekukoen aurrean egindako altxatze militar publikoa hemen: <http://www.hchr.org.co/publico/comunicados/2015/ouJgZRY-f3OOF.pdf>

133 *El Espectador*, 2018ko apirilaren 6a, Familia Quilcué admite perdón de Min Defensa por asesinato de Edwin Legarda. <https://www.>

contagioradio.com/familia-quilcue-admite-perdon-de-ministerio-de-defensa-por-asesinato-de-edwin-legarda-articulo-52603/

134 Francisco de Roux jaunari egindako elkarriketa, Bogota, 2018ko uztaila.

135 *Idem*, Francisco de Roux jaunari egindako elkarriketa.

Bibliografia

Liburuak

- » Kontziliazio Nazionalerako Batzordea: *El Corazón de las víctimas, aportes a la verdad para la reconciliación en Colombia*, San Pablo, Bogota, 2016.
- » De Roux, Francisco: *La audacia de la paz imperfecta*, Planeta Colombia argitaletxea, Bogota, 2018.
- » Kolonbiako Unibertsitate Nazionala (Bogota), *La consulta y el consentimiento previos, libre e informados de pueblos étnicos frente a los Acuerdos de la Habana*, hainbat autore, Bogota, 2017.

Txostenak

- » Amnesty International: *Transformar dolor en esperanza, defensoras y defensores de derechos humanos en América*. Amnesty International argitaletxea, 2012.
- » Amnesty International: *2017/2018ko Txostena*.
- » Amnesty International: *Defensoras y defensores de derechos humanos bajo amenaza: La reducción del espacio para la sociedad civil*, 2017.
- » Memoria Historikoaren Zentro Nazionala. *Una nación desplazada: informe nacional del desplazamiento forzado en Colombia*, Bogota, CNMH - UARIV, 2015.
- » Herri Indigenen Giza Eskubideetarako Batzordea: *Balance General de Vulneraciones a los DDHH e infracciones al DIH contra Los Pueblos Indígenas*, Colombia 2017-2018, Bogota, 2018.
- » Kolonbiako Juristen Batzordea: *Promoviendo las garantías y exigiendo derechos: Guía para profesionales en el SIVJRNR*, Bogota, 2017ko azaroa.
- » Herriaren Defentsa Erakundea: *La Minería sin control - Un enfoque desde la vulneración de los Derechos Humanos*, Bogota, 2015.
- » FIDH-OMCT, Giza eskubideen defendatzaileak babesteko behatokia, *El testimonio obstinado*, 2007ko Txostena.
- » Front Line Defenders: *Informe Anual sobre defensores/as de derechos humanos en riesgo 2017*.
- » INDEPAZ: *Dejación de armas y sometimiento: XIII Informe-Presencia de Grupos Narcoparamilitares*, oct. 2017.
- » Nazioarteko Bake Ikerketen KROC institutua: *Segundo Informe sobre el estado efectivo de Implementación del acuerdo de paz en Colombia*, diciembre 2016 - mayo 2018, Notre Dame Unibertsitatea, 2018ko abuztua.
- » Somos Defensores programa: *Piedra en el Zapato*, Informe Anual 2017. Sistema de Información sobre Agresiones contra defensores y Defensoras de DD.HH. en Colombia SIADDHH, Bogota, 2018.
- » Nazio Batuen Egiatzatze Misioa Kolonbian, *Idazkari Nagusiak Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluari egindako hirugarren txostena*, S/2018/723, 2018ko uztailaren 20a.
- » NBGEGKB, *Informe Anual sobre la situación de Derechos Humanos en Colombia*, 2018ko martxoa. A/ HRC/37/ Add.3, 2018.
- » Nazioarteko Egiatzatze Batzordearen Idazkaritza Teknikoa (CINEP/PPP-CERAC): *Segundo Informe de Verificación de la implementación del Acuerdo Final de Paz en Colombia para los Verificadores Internacionales Felipe González y José Mújica*, Bogota, 2018ko uztaila, 5.
- » Heinrich Böll Stiftung Fundazioa - Kolonia: *Informe especial de Derechos Humanos Situación de lideresas y líderes sociales, de defensoras y defensores de derechos humanos y de excombatientes de las Farc-EP y sus familiares*; Ideas Verdes Txostena, 8. zk., 2018ko ekaina.

Egunkariko artikulak

- » Herriaren Gaikuntza Institutua (IPC): Defensores de derechos humanos: bajo el estigma del presidente Uribe, Agencia de Prensa, 2009ko urriaren 23a. Ikus hemen: <http://www.ipc.org.co/agenciadeprensa/index.php/2009/10/23/defensores-de-derechos-humanos-bajo-el-estigma-del-presidente-uribe/>
- » 2011ko azaroaren 7ko Semana aldizkaria: A nombre del Estado Presidente Santos pidió perdón a nombre del Estado por la masacre de El Salado. <https://www.semana.com/nacion/articulo/nombre-del-estado-presidente-santos-pidio-perdon-masacre-el-salado/242647-3>
- » El País, 2012ko urtarrilaren 25a: El Presidente Santos pide perdón a las víctimas por matanza paramilitar. https://elpais.com/internacional/2012/01/25/actualidad/1327450839_651789.html
- » El Espectador, 2018ko apirilaren 6a, Familia Quilcué admite perdón de Min Defensa por asesinato de Edwin Legarda. Hemen: <https://www.contagioradio.com/familia-quilcue-admite-perdon-de-ministerio-e-defensa-por-asesinato-de-edwin-legarda-articulo-52603/>
- » El Espectador, 2018ko uztailaren 1a, <https://www.contagioradio.com/familia-quilcue-admite-perdon-de-ministerio-e-defensa-por-asesinato-de-edwin-legarda-articulo-52603/>. <https://colombia2020.elespectador.com/pais/siguen-asesinando-lideres-de-sustitucion-de-cultivos-ilicitos>
- » El Tiempo, 2018ko uztailaren 6a: En más de 50 ciudades se vivió la ¡Velatón! Por asesinatos de líderes
- » El Heraldo, 2018ko uztailaren 7a: Santos y Duque firmaron gran pacto nacional por la vida de líderes sociales. <https://www.elheraldo.co/colombia/santos-y-duque-firmaron-gran-pacto-nacional-por-la-vida-de-lideres-sociales-516536>
- » La Silla Vacía, 2018ko uztailaren 25a, Sin líderes sociales Colombia se queda sin proyecto colectivo. <https://lasillavacia.com/silla-llena/red-verde/historia/sin-lideres-sociales-colombia-se-queda-sin-proyecto-colectivo-67188>
- » El País.com.co albistea, 2018ko abuztuaren 9koa: ONU acompaña entrega del primer informe de la Onic ante la Justicia Especial para la Paz. Hemen: <https://www.elpais.com.co/colombia/onu-acompana-entrega-del-primer-informe-de-la-onic-ante-la-justicia-especial-de-paz.html>
- » El Espectador, 2018ko abuztuaren 13a: Así están asesinando a los exguerrilleros de las Farc. Ikus: <https://colombia2020.elespectador.com/pais/asi-estan-asesinando-los-exguerrilleros-de-las-farc>

Autoak, Legeak eta Dekretuak

- » Gorte Konstituzionalaren 004/09, 005/09 eta 382/10 autoak.
- » 1991ko 21 Legeak LANEren 169 Hitzarmena (besteak beste, alde zaurerik gabe kontsulta-erantzun buruzkoa) eta haren Erregelamendua gehitu zituen, 1998ko 1320 Dekretu bidez.
- » 1993ko 70 Legea eta haren Erregelamendua 1745-1995 Dekretuan, Komunitate Beltzen Lurren jabetza kolektiboari buruzkoa.
- » 2018ko 1908 Legea, Erakunde Kriminalen Justiziarekiko Mendekotasunari buruzkoa.
- » 2078 Dekretuak babes kolektiborako ibilbide teorikoa ezartzen du: <http://es.presidencia.gov.co/normativa/normativa/DECRETO%202078%20DEL%2007%20DE%20DICIEMBRE%20DE%202017.pdf#search=2078>
- » 154 Lege Dekretua, 2017ko otsailaren 3koa, Segurtasuna Bermatzeko Batzorde Nazionala ezartzen duena: <http://es.presidencia.gov.co/normativa/normativa/DECRETO%20154%20DEL%2003%20FEBRERO%20DE%202017.pdf>